


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

INDARKERIA BIKARIOA
GENERO-INDARKERIAREN BARNE:
ADINGABEAK MENDEKU TRESNA GISA

Gradu Amaierako Lana
KRIMINOLOGIA GRADUA
2021-2022 IKASTURTEA

EGILEA: Ainhoa Martínez Valverde
ZUZENDARIA: Izaro Icuza Sánchez

Donostian, 2022ko ekainaren 17an

LABURPENA:

Gradu-amaierako lan honen bidez, genero-indarkeriaren barne indarkeria bikarioari buruzko ikuspegi teorikoa eta praktikoa eman nahi da. Indarkeria bikarioa emakumearen aurka zuzentzen den indarkeria da, baina zeharka seme-alabengan erabiltzen dena. Beraz, adingabeak indarkeria horren ordezkotako objektu gisa erabiltzen dira. Lan honek indarkeria horren modurik krudelenean zentratu da, aitak adingabeak hiltzea. Fenomeno horri ikuspegi praktikoa emateko, bost epai aztertzen dira, zeinetan motibazio nagusia emakumeari, bai emazte zein emazte ohiari kaltea eragitea den, seme-alaben bitartez, hilketa burutuz edo hori aurrera eramaten saiatuz. Halaber, ondorioztatu ahal izan da batzuetan indarkeria-egoera bat edo bikotearen egoera irregular bat zegoela (aurreko salaketak, dibortzioak eta, beraz, adingabeentzako ikustaldi-erregimena, dibortzio-izapideak), horiek adingabeen hilketaren bultzatzaileak izanik. Beraz, bai emakumeen zein adingabeen segurtasuna bermatzeko neurriak hartu beharko liratekeela egiaztatzen da.

HITZ-GAKOAK: Indarkeria bikarioa. Genero-indarkeria. Genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak.

RESUMEN: Mediante este trabajo de fin de grado se trata de dar una visión teórica y práctica sobre la violencia vicaria dentro de la violencia de género. Tras definir la violencia vicaria como aquella violencia que se ejerce sobre los hijos e hijas para producir daño a la madre, este trabajo hace hincapié en la forma más cruel de esta violencia, el asesinato de los menores por parte de su padre. Para dar una visión práctica a este fenómeno, se analizan cinco sentencias en las que la principal motivación es generar daño a la mujer o exmujer mediante los hijos llevando a cabo el asesinato o intentándolo. También se ha podido concluir que en ocasiones ya había una situación de violencia o situaciones irregulares de la pareja (denuncias anteriores, divorcios y por lo tanto régimen de vistas para los menores en común, trámites de divorcio), siendo estos impulsores de los asesinatos de los menores. Por lo tanto, hay situaciones en las que se tendrían que tomar medidas para garantizar la seguridad tanto de las mujeres como de los menores.

PALABRAS CLAVE: Violencia vicaria. Violencia de género. Menores asesinados a causa de violencia de género.

AURKIBIDEA:

MARKO TEORIKOA	4
1.Sarrera	4
2.Indarkeria bikarioaren definizioa	6
2.1 Indarkeria bikarioa eta genero-indarkeria	6
2.2 Indarkeria bikarioa eta mendekuzko filizidioa	10
3. Indarkeria bikarioa eta dibortzioa	13
4. Ustezko Gurasoen alienazioaren sindromea (uGAS): genero-indarkeriako eta indarkeria bikarioko kasuetan duen eragina.	15
5. Biktimen eta erasotzaileen profila	17
5.1 Biktimaren profila	18
5.2 Erasotzailearen profila	19
6.Indarkeria bikarioa genero-indarkeriaren lege-esparruan	22
7. Praktika judiziala	31
8. Datu estatistikoak	32
8.1.Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género	32
8.2 Federación de Mujeres Separadas y Divorciadas	42
8.3 2019ko Emakumeen Indarkeriaren aurkako Makro-inkesta (Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2019)	43
ALDERDI PRAKTIKOA: SENTENTZIEN AZTERKETA	45
1. Kalifikazio penalak	51
1.1 Ezarritako zigorrak eta zigorren iraupena	52
1.2.1 Inguruabar salbuesleak	54
1.2.2 Inguruabar aringarriak	54
1.2.3 Inguruabar astungarriak	56
2. Erasotzaileen motibazioa egitateak aurrera eramateko	57
3. Biktimen inguruko datu batzuk: adina eta jaioterria.	58
4. Erasotzailearen inguruko datu batzuk: adina, jaioterria eta bere buruaz beste egitea.	59
5. Ahaidetasuna	60
6. Afektibitate- eta bizikidetza-harremanak	61
7. Aurretiazko salaketak eta kautela neurriak	62
8.Aztertutako epai konkretuen ondorioak	63
ONDORIO OROKORRAK ETA PROPOSAMEN BATZUK	66
KONTSULTATUTAKO ARAUDIA ETA LEGERIA	75
Txosten exekutiboa	77

MARKO TEORIKOA

1.Sarrera

Kriminologia-graduaren ikasketen zehar fenomeno eta kontzeptu kriminologiko ugari jorratu dira, gehienak delitu berarekin edo delitu hori egiten duen pertsonarekin lotuta. Hala ere, inoiz jorratu dugu biktimei buruzko gai-zerrenda, baina ez oso sakon. Hori da gai hau aukeratzeko abiapuntuetako bat. Aldi berean, indarkeria bikarioa azken urteetan etengabe errepikatzen den kriminologiarekin lotutako kontzeptu berri bat izateak ere sustatu du honen inguruko lana egitera animatzea. Adituen arabera, indarkeria bikarioa da, aitak seme-alabak erabiltzen dituenean amari (bikotekideari edo bikotekide ohiari) min egiteko. Beraz, emakumearen aurka zuzentzen den indarkeria da; izan ere, seme-alabak instrumentalizatzea, emakumeari mina eragiteko eta kontrola areagotzeko, genero-indarkeriak hartzen duen modurik muturrekoenetako eta basatienetako bat da.

Indarkeria bikarioari buruzko ezjakintasun handia dagoen arren, genero-indarkeriaren testuinguruan ohikoa den indarkerietako bat da eta oso gutxitan salatzen dena. Ez da indarkeria isolatu bat, baizik eta emakumeek sarritan jasaten duten kontrol eta tratu txar prozesu baten amaiera. Hori dela eta, funtsezkoa da indarkeria bikarioari buruz hitz egitea, informatzea eta prestatzea, batzuetan gai bati buruz hitz egiten ez denean existitzen ez dena ematen duelako, eta askotan ezagutzen ez dena zaila izango delako horri aurrea hartzea edo aurre egitea. Izan ere, haurren babesa bermatzeko eta genero-indarkeria mota guztiak desagerrarazteko mekanismo eraginkorrak behar dira.

Komunikabideetan gertakari horiek etengabe izendatzeak agerian utzi zidan gaia puri-purian zegoela, eta "*biolentzia bikarioa*" edo "*indarkeria bikarioa*" terminoa arreta handia jasotzen ari zela gizartean. Hori izan zen gaia aukeratzeko beste arrazoi nagusietako bat. Izan ere, aipatu dudana bezala, indarkeria bikarioa gisa definitu diren azken kasuak sortu duten asaldura mediatikoak interes handia piztu du gizartearengan, eta fenomenoren definizio bat sortzea bultzatu du.

Indarkeria bikarioa kontzeptuaren hedapena fenomenoaren azterketa zientifikoa alde batera utzita egin da. Nahikoa da aldizkari zientifiko espezializatueta bibliografia bilatzea egiaztatzeko terminoak berme zientifikorik ez duela eta, beraz, nazioartean ere adostasunik ez

duela. Kontzeptua ez da ikerketa handien xede izan. Horren ondorioz, eztabaida handia sortu da definizioa zehazteko moduari buruz, gutxi ikertu den gaia da eta. Hala ere, azken urte honetan, 2022an, muturreko indarkeria bikarioari buruzko datuen azterketa bat egin da Sonia Vaccaro psikologo kliniko eta foresearen eskutik.

Beraz, lan honen helburuen artean, genero-indarkeriaren barruan, indarkeria bikarioaren terminoari buruzko berrikuspen bat egiten saiatzea da, baina baita delituaren fenomenologia alderdi kriminologiko batetik ulertzea ere, non epai batzuk aztertuko diren ahalik eta informazio gehien aztertzeke eta ikuspuntu praktikoagoa emateko.

Dagoeneko aipatu da kasuen zalaparta mediatikoa, baina, egoeraren hedapena eta garrantzia egiaztatzeke, beharrezkoa da Berdintasun Ministerioak jasotzen dituen datu batzuk ikustea. Hala nola, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak, 2021ean 47 biktima hilgarri egon zirelarik (Ministerio de Igualdad, 2021). Hala ere, emakumeak ez dira genero-indarkeriaren biktima bakarrak. Batzuetan, seme-alabek pairatzen dute indarkeria hori modu instrumentalean; zehazki, 7 izan dira 2021ean aitak berak erailak izan diren adingabeak (Ministerio de Igualdad, 2021).

2013tik, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak gurasoek 47 adingabe hil dituztela baieztatu du (Ministerio de Igualdad, 2022). Kasu askok arreta mediatiko handia izan dute. Jose Bretonen kasutik 2011an, Ruth (sei urte) eta José (bi urte) seme-alabak erail zuenetik, azken kasurik mediatikoenerarte, 2021eko udan Tenerifen, non aitak bere alabak Anna (urtebete) eta Olivia (sei urte) hil zituen.

Kasu horiek komunikabideetan sortu duten zalaparta soziala eta ikuspegi kriminologiko batetik sortzen duen interesa kontuan hartuta, lan hau, fenomeno honen inguruan informazioa jasotzera, kasu batzuen azterketa egitera eta azterketaren ostean ondorio batzuk ateratzea bideratuta dago.

2. Indarkeria bikarioaren definizioa

2.1 Indarkeria bikarioa eta genero-indarkeria

Indarkeria bikarioa genero-indarkeriaren barnean definitu ahal izateko, beharrezkoa da, lehenik, azken termino hori definizioa begiratzera Genero Indarkeriari buruzko Legean, (1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa). Bertan esaten da *“La violencia de género no es un problema que afecte al ámbito privado. Al contrario, se manifiesta como el símbolo más brutal de la desigualdad existente en nuestra sociedad, que se dirige sobre las mujeres por el mismo hecho de serlo, por ser consideradas por sus agresores, carentes de los derechos mínimos de libertad, respeto y capacidad de decisión”*. Era berean, lege honen xedea bere lehenengo artikuluan adierazten da: *“La presente Ley tiene por objeto actuar contra la violencia que, como manifestación de la discriminación, la situación de desigualdad y las relaciones de poder de los hombres sobre las mujeres, se ejerce sobre éstas por parte de quienes sean o hayan sido sus cónyuges o de quienes estén o hayan estado ligados a ellas por relaciones similares de afectividad, aun sin convivencia.”*Geroago, legeriaren atalean, terminoari buruzko azterketa sakonagoa egingo da.

Indarkeria mota hau generoan oinarritzen da, hau da, gizonek emakumeen aurka egiten duten indarkeria mota da, emakumeak izate hutsagatik eta lehenengoek generoaren ondorioz bigarrenek duten posizio sozialagatik (Ferrer-Pérez & Bosch-Fiol, 2019). Horrela, gizonek rol eta posizio sozial menderatzaileak betetzen dituzte, eta emakumeek menderakuntza-rolak eta -posizioak izanik (Ferrer-Pérez & Bosch-Fiol, 2019).

Genero-indarkeriaren barruan, hainbat adierazpen edo jokabide bereizten dira, hala nola indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexuala, etab. Kasu honetan, indarkeria psikologikoan zentratuko gara, indarkeria bikarioa aurrera eramateko orduan, emakumearen aurka erabiltzen den indarkeria ohikoena da eta. Bertan hertsapen-mekanismo desberdinak baitaude. Horietako bat indarkeria instrumentala izango litzake, zeinetan tratu txarren emaileak emakumeari indarkeria psikologikoa eragiten dion, seme alabak, animaliak, etab., azken batean, berak estimatzen dituenak erabiliz, emakumeak sufritu dezan (Bernuz Beneitez, 2015).

Indarkeria instrumentala abiapuntutzat hartuta, azterlan izango den kontzeptua sartu beharra dago, indarkeria bikarioa. "*Bikario*" kontzeptuak funtzio bat betetzean pertsona baten ordeztuak beste bat jartzeari egiten dio erreferentzia. Beraz, indarkeriari aplikatzen zaionean, pertsona bati eraso egitea da, beste baten ordeztuak eta beste pertsona hori helburu nagusia izanik (Osakidetza, 2021). Genero-indarkeriaren testuinguruan aplikatuz, seme-alabak erabiltzen dira amari, bikotekideari edo bikotekide ohiari min egiteko.

Indarkeria bikarioa terminoa Sonia Vaccaro psikologo klinikoak sortu zuen duela ia 10 urte eta azken aldirian psikologoaren ikuspuntuak indarra hartu du, honela definitzen duelarik: Indarkeria bikarioa emakumearen aurka zuzentzen den indarkeria da, baina zeharka seme-alabengan erabiltzen dena. Beraz, adingabeak indarkeria horren ordeztuko objektu gisa erabiltzen dira. Genero-indarkeriaren testuinguruan kokatzen da eta, adibidez, emakumeak bikotekidearekiko harremana utzi nahi duenean sortzen da. Une horretan erabiltzen ditu aitak seme-alabak xantaia gisa: "*Joaten bazara, ez dituzu seme-alabak berriro ikusiko*". Horrela, subjektuak emakumea hertsatzen du eta seme-alabak tratatu txarrekin jarraitzeko modutzat hartzen ditu. Horrela, tratatu txarrak ematen dituenak kalte handiena egin nahi dio emakumeari (Vaccaro, 2019; Vaccaro, 2021).

Beraz, Sonia Vaccaro psikologoaren ikuspegiaren arabera, emakumeari zuzentzen den indarkeria-mota da baina, mina eragiteko, hirugarren bat erabiliz, kasu horietan, aitak bere seme-alabei egiten dien kalte fisiko edo psikologikoari erreferentzia eginez, ama mintzeko asmoz. Ohartarazi duenez, heriotza eragin zuten seme-alaben gaineko indarkeria bikarioa amaren aurkako aurretiazko indarkeriaren amaiera izan zen, tratatu txarren aurretiazko historia luzea zeramaten gertakariak izanik (Vaccaro, 2019). Erasotzaileak adin txikikoak hiltzen ditu, baina lehenago beti, emakumeari adierazi, mehatxatu eta jakinarazten dio bere ahulgunea bere seme-alabak direla (Vaccaro, 2021).

Aipatu behar da indarkeria bikarioa emakumearen aurkako dela, eta, oro har, haren seme-alabak erabiltzen direla indarkeria hori gauzatzeko, bai eguneroko egitate sotilen bidez, zein haiei zuzenean bideratutako kalteen bidez, baina beti tratatu txarrak aurrera eramaten dituenak emakumea horretaz ohartarazten dela ziurtatuz. Baina indarkeria bikarioa ez da seme-alabetara mugatu behar, eta emakumeak harreman afektiboa duen eta berarentzat esanguratsuak diren beste pertsona batzuen aurka ere bideratu daiteke (Vaccaro, 2022).

Hori horrela, indarkeria bikarioa emakumeei kalte egiteko seme-alabei egiten zaien indarkeria da. Emakumeari kalte egin nahi bazaio ere, kaltea hirugarrenen bidez egiten da. Seme-alabak kaltetzean, eta maila gorenean, horren erailketa aurrera eramatean, erasotzaileak ziurtatzen du emakumea ezin izango dela inoiz errekueratu (Vaccaro, 2016).

Espainiaren kasuan, azken hamarkadan eman diren kasuak sortu duten interesa dela eta, indarkeria bikarioa terminoa etengabe errepikatu da, fenomeno ulertu eta definizio bat emateko asmoarekin. Era berean, politikaren eta administrazioaren esparruko dokumentuetan, baita gizarte-kazetaritzan eta gertakarietan erabili da ere. Beraz, terminoak indarra hartu du, behin eta berriro erabili egin delako.

Era berean, Montse Linares abokatuak adierazten du nola *“violencia vicaria”* terminoa ez dela estatu mailako legean, hau da, 1/2004 Lege Organikoan, agertzen den terminoa, baina bai egunerokotasunean erabili izan dena. Honen erabilera orokorrean aita erasotzaileak egindako adingabeen hilketei buruz hitz egiteko erabili da, non helburu nagusia seme-alaben amari kalte egitea eta erlazioa hausteagatik zigortzea izan da. Bere ustez, egokiagoa izango litzateke *“referirnos a esta violencia como la instrumentalización de los menores por parte del agresor como “arma e instrumento” para ejercer violencia de género contra la madre, su víctima.”* (Linares, 2021).

Elena del Pilar Ramallo Miñán irakaslea, zuzenbideko doktorea eta ikertzailea dena fenomeno honen identifikazioa eta bereizketa errazteko *“Violencia de extensión”* edo euskaraz hedapen-indarkeria eta indarkeria bikarioaren arteko bereizketa egiten du. Bere ustez, hedapen-indarkeria, amaren aurkako genero-indarkeria zuzenik ez dagoen kasuetan ematen da, eta indarkeria bikarioa, bi indarkeriak bat datozenean eta bata bestearen ondoriozkoa denean gertatzen da. (Ramallo Miñán, 2022). Hau da, hedapen-indarkeria gurasoetako edozeinek aurrera eramaten du (aitak/amak), eta tratu txar espezifiko bat da, seme-alabak kaltetzen dituen (Ramallo Miñán, 2022). Indarkeria bikarioa berriz, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kasuan ematen da. Non *“la instrumentalización y maltrato sobre los hijos es un daño a sumar sobre la violencia global que ya está siendo ejercida sobre las madres, esta última se entendería como una violencia derivada de la otra.”*(Ramallo Miñán, 2022).

Beraz, ikerlariak defendatzen duen tesia da indarkeria mota hau ezin dela beti genero-indarkeriaren testuinguruan aztertu. Era berean, lan honetan Sonia Vaccaro psikologoaren ikuspuntua kontuan hartuko da, gaur egun indarra hartu duena izateagatik eta.

Egitate honen aurrean, Yugueros García (2016), Sonia Vaccaro bezala, indarkeria bikarioaren barne ematen diren gertakari horiek genero-indarkeriako modalitate bat direla adierazten du. Gainera, honek argi uzten du kasu hauetan *“el fin último que pretende el sujeto activo de estos ilícitos penales no es otro que causar el mayor daño posible a la madre de estos niños y niñas.”* Argi geratu da, erasotzaileak biktimari ahalik eta kalte handiena eragitea bilatzen duela, eta horretarako gehien maite duena erabiltzen duela: seme-alabak.

Emakumeek indarkeria matxista desagerrarazteko duten eskubideari buruzko 17/2020 Legean 4.2 artikuluan xedatzen du indarkeria bikarioa, *“consiste en cualquier tipo de violencia machista ejercida contra los hijos e hijas con la finalidad de provocar daño psicológico a la madre.”*

Legeak 4.3 artikuluan¹ onartzen du, halaber, indarkeria matxista mota guztiak (indarkeria bikarioa barne) emakumearen aurkako indarkeria direla, mehatxuarekin edo ingurune afektiboaren aurka indarkeria fisiko edo psikologikoa eraginez gauzatzen direnean, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurka, emakumea atsekabetezko borondatearekin.

Espainiaren kasuan, indarkeria bikarioa ez da espresuki tipifikatzen Zigor Kodean (ZK) baina hori zigortzeko ahaidetasun-astungarria (ZKko 23.art²) erabili daiteke erailketa edo giza hilketari astungarri hori gehituz.

¹ 4.3 artículo (Ley 17/2020, de 22 de diciembre, de modificación de la Ley 5/2008, del derecho de las mujeres a erradicar la violencia machista):

Se entiende que las diversas formas de violencia machista son también violencia contra la mujer cuando se ejerzan con la amenaza o la causación de violencia física o psicológica contra su entorno afectivo, especialmente contra los hijos e hijas u otros familiares, con la voluntad de afligir a la mujer.

² Artículo 23 (Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal):

Es circunstancia que puede atenuar o agravar la responsabilidad, según la naturaleza, los motivos y los efectos del delito, ser o haber sido el agraviado cónyuge o persona que esté o haya estado ligada de forma estable por análoga relación de afectividad, o ser ascendiente, descendiente o hermano por naturaleza o adopción del ofensor o de su cónyuge o conviviente.

Bukatzeko, esan behar da batetik, indarkeria bikario terminoa ez duela mundu anglosaxoian erabiltzen, baizik eta filizidio hitza eta bestetik, filizidioaren kontzeptuaren barne mendekuzko filizidioa ere erabili daitekeela (Resnick, 2016). Hain zuzen ere, hori da Nazioartean gauzatu diren ikerketetan erabiltzen den kontzeptua, horregatik, lan honen hurrengo atalean aztergai izango da kontzeptu hori.

2.2 Indarkeria bikarioa eta mendekuzko filizidioa

Esan beharra dago, lan honetan eta Espainia mailan “*indarkeria bikarioa*” esamoldea erabiltzen bada ere, ikerketa zientifikoaren eremuan eta nazioartean aurrera eramandako ikerketetan bereziki termino hori ez da oso ohikoa. Nazioarte mailan ez da terminologiarik aurreikusten haurren bidez emakumeei min egiteko erabiltzen den indarkeriari erreferentzia egiteko. Hala ere, gurasoetako batek (ama edo aita, desberdintasunik egin gabe) seme-alabak erailtzen dituenean, bikotekidearekiko mendeku metodo gisa (adingabeak mina eragiteko tresna gisa erabiliz), horretarako terminologia zehatza dago.

Nazioarteko testuinguruan, erabiltzen den terminoa filizidioa da. Kontzeptu hori honela definitzen da: “*El homicidio o intento de homicidio de un padre o una madre contra un hijo se llama genéricamente filicidio, que consiste en la muerte violenta de un hijo(a) a manos de su padre o madre*” (Company et al. 2015). Terminologia honekin ez erasotzailearen generoa aurreikusten, beraz, hilketa aurrera eramaten duena gizonezkoa edo emakumezkoa izan daiteke.

Filizidioa gurasoek seme-alabak hiltzean datza. Hau termino generikoa da, neonatizidioa barne hartzen duena, hilketa haurraren bizitzako lehen orduetan gertatzen denean, infantizidioa, adingabeak urtebete baino gutxiago duenean, eta filizidioa, haurrak urtebete baino gehiago duenean (Friedman eta Resnick, 2009; Company et al., 2015).

Resnick (1969), “*Child murder by parents: a psychiatric review of filicide*” lanean, filizidiora daramaten motibazioen sailkapen bat proposatu zuen lehena izan zen. Lehenik eta behin, filizidio altruista nabarmentzen da. Filizidio azpimota honetan bi egoera aurreikusten dira, alde batetik, erasotzailearen suizidioarekin lotutako filizidio altruista, eta, bestetik,

biktimaren sufrimendua arintzeko aurrera eramaten den filizidioa. Lehenengoan, erasotzaileek sufrimendu pertsonal sakona alegatzen dute, bere buruaz beste egin nahi izatea eragiten diena, eta, gainera, uste dute ez direla gai seme-alabak munduan bakarrik uzteko haiek gabe, eta, beraz, bere buruaz beste egin aurretik adingabeak hil egiten dituzte. Filizidio altruistaren bigarren azpimotari dagokionez, adierazi behar da kasu horietan gurasoak erabakitzen duela semea edo alaba akabatzea, benetako sufrimenduren bat edo biktimarengan imajinatutako sufrimenduren bat arintzeko (Trijueque y Rivas, 2003).

Aipatzen dituen beste motibazio batzuk hauek dira: psikosia (haluzinazioak eta eldarnioak buruko gaixotasun bati edo drogen kontsumoari erantzun diezaiokete), haurra ez desiratzea (alderdi hori aitatasun/amatasun arazoekin lotzen da, non adingabea zama ekonomikotzat eta gurasoen planetan oztopotzat hartzen den), istripua (jokabide leherkor, oldarkor eta bortitzen ondorioz, baina hilketa asmorik ez dagoen lekuetan), sexu-gozamenerako (erasotzaileak bere desio sexualak seme-alaben hilketaren bidez ase nahi dituen kasuetan), erlijio- eta kultura-sinesmenak, sinpatia edo arretagatik (adibidez, beste bati eragindako nahaste faktifikala (trastorno facticio infligido a otro) lehenago Münchhausen sindromea botereagatik esaten zitzaiona barne) edo **beste gurasoari mendekua hartzea** (hemen helburua seme-alaben hilketaren bidez bikotekideari edo bikotekide ohiari sufrimendua eragitea da) (Resnick, 1969; Myers et al., 2021). Mendeku bidezko filizidioa edo *"Spouse revenge"* gisa sailkatzen dena, honela definitzen da: *"Consists of parents who kill their offspring in a deliberate attempt to make their spouses suffer."* (Resnick, 2016).

Mendekuzko filizidioan alde txikia dago erasotzaileen sexuaren artean, hau da, emakumeen eta gizonen artean. Hala ere, ohikoa da bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria-testuinguruetan agertzea. Hots, harremana hausteko prozesuetan, adingabeen zaintza edo bisita lortzeko lehian, guraso batek uste duenean bikotekidea desleiala izaten ari dela edo hausturaren ondoren beste pertsona batekin bizitza berregin duela eta etxeko gatazketan (Myers et al., 2021). Resnick-en (2016) arabera, ezkontidearen mendekuzko filizidioaren eragile ohikoenak ezkontidearen desleialtasuna eta seme-alaben zaintzagatiko eztabaidak (kustodia kasuak) dira.

Mendekuzko filizidioei buruz 2021ean egin berri den ikerketa batek seme-alaben hilketari egiten dio erreferentzia, eta kasu honetan mendekuzko motibazioarekin, hilketa horien atzean zeuden motibazioak zehazten dira. Mendeku hilketa gauzatzeko lehenengo

motibazioa aztertu diren 62 kasuetatik 24 kasutan (% 39) bikotekideak erasotzailea abandonatu edo baztertu egiten du: *“the offender being abandoned or spurned by one's partner, termed “rejection” type.”* (Myers et al, 2021). Kasu horietan, erasotzailea uzten zuen pertsona, dibortzioa edo harremana amaitzea nahi zuela adierazi zuen eta kasu horietako askotan, bikoteak harremana amaitua zuen etxeko indarkeria giro batetik ihes egiteko helburuarekin (Myers et al, 2021). Beraz, kasu batzuetan genero-indarkeriazko egoerak egotea posible izango zen, eta harremana uztearen ondorioz seme-alaben hilketa ematea.

Ikerketak argitzen du nola, batzuetan, erasotzaileak, harremana amaitzeko aukera tarteratzen zenean, seme-alabak hiltzeko mehatxu egiten dio bikotekideari edo bikotekide ohiari: *“Offenders sometimes had made veiled or direct threats beforehand to kill the partner and/or their child if they were to leave the relationship”* (Myers et al, 2021). Hau da, aldeaz aurreko abisua edo mehatxu bat zegoen krimen latz horiek egiteko.

Mendekua bilatzeko bigarren arrazoi ohikoena, 20 kasutan ikusia (% 32) zaintza eta bisita eztabaidei buruzkoa izan zen. Batzuetan, horrek seme-alabak berriro ez ikusteko beldurra edo mehatxua eragiten zuen, justifikatuta egon ala ez, eta askotan borroka sutsua eragiten zuen familia-auzitegien sisteman. Kasu batean, hilketa baino ordu batzuk lehenago, aitak bere familia abokatuaren idazkariari deitu zion eta esan zion: *“I can 't have her [the child victim], no one will”* (*“ezin badut eduki [alaba biktima], inork ez du egingo”*). Tipoa hori, zaintza edo bista eztabaida, edo *“custody/visitation dispute”* bezala etiketatuta zen (Myers et al, 2021).

11 kasuetan (% 18), erasotzaileak mendekua hartu nahi zuen bere bikotekidea desleiala zela pentsatzen zuelako edo bere bikotekide edo bikotekide ohiarekin beste bikotekide berria aurkitu eta bizitzarekin aurrera egiten zuelako. Erasotzaile batzuek, nahiz eta dibortziatuta egon edo harremanean ez egon, ezin zuten onartu bikotekide ohiarekin beste norbaitekin egotea. Jeloskeria zen emozio nagusia, eta mota hori desleialtasun edo jeloskortasun bezala kategorizatuta zen. Azkenik, zazpi (% 11) kasutan, mendekuzko hilketak argudio bizi baten bidez edo gatazka baten ondorioz gertatu ziren, eta azken mota hau argumentu/gatazka bezala izendatu zen (Myers et al, 2021).

Filizidioaren aurretik bikote-indarkeriako historia ote zegoen aztertu zen, eta laginetik (62 kasu) 22 kasu (% 35) dokumentatu ziren. Bikote egoerari dagokionez, 33 kasutan (% 53),

gurasoak legez ezkontuta zeuden oraindik, nahiz eta ezkontza-arazo larriak zituzten edo dibortzio-prozesuan zeuden. 4tan (% 6), gurasoak ezkontuta egon gabe zeuden, eta bikote-arazo larriak zituzten. 12tan (% 19) gurasoak dibortziatu egin ziren, eta 13tan (% 21) ezkontuta egon ez ziren gurasoak, baina banandu egin ziren kasuak ziren (Myers et al, 2021).

Mendekuz egindako filiziden profilari dagokionez, hiltzaileen batez besteko adina 36,5 urte izan zen, eta sexuari dagokionez, 33 (% 53) gizon eta 29 (% 47) emakume izan ziren. Nahasmendu psikiatrikoen presentziari dagokionez, 35ek (% 56) nolabaiteko nahasmendu mental aktiboren bat zuten. Diagnostikorik ohikoena nortasun-nahasteren bat izan zen 21 kasutan (% 34), bereziki nortasun-nahasmendu antisoziala, nortasun-nahasmendua zutenen artean zazpitan antisoziala izanik. Hurrengo diagnostiko ohikoena depresioa izan zen, 13 delitugileren artean (% 21). Kasu horietako bi, erditze osteko depresioak izan ziren. Horren ondoren, 6 (% 10) substantzien erabileragatiko nahasmendua zuten, bi (% 3) antsietate-nahasmendua, bat nahasmendu eskizoafektiboarekin, beste bat eldarniozko ideien nahasmenduarekin (zelotipiak) eta beste bat nahasmendu bipolarra (Myers et al., 2021).

3. Indarkeria bikarioa eta dibortzioa

Duluth Eredua, emakumeen aurkako indarkeriaren gaia jorrazteko diziplina anitzeko lehen programa estandarizatua izan zen, Estatu Batuetan jaioa, Duluthen, Minnesotan, 1980aren hasieran. Programa honek emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen duten gizonen jokabidea patologizatu nahi zuten teoriekin hautsi nahi zuen, ereduaren erdigunean indarkeria hori sortzen zuten botere-nahian eta kontrolean jarriz. Garai hartan, 80ko hamarkadan, seme-alabentzat aurreikusten ziren arriskuak honako hauek ziren: eragin psikologikoa, amaren besoetan bazeuden kolpeak jasotzeko arriskua, eta ama/emakumeak tartean jarriz gero hiltzeko arriskua (amak kolperik ez jasotzeko) (Pence eta Paymar, 1993).

Berrogei urte beranduago, programaren garapenarekin, bere interbentzioaren barne hartu zuen emakumearen aurkako indarkeria-modu berriak: emakumeak bikotearekin harremana hautsi eta/edo banandu/dibortziatu ondoren hasten direnak. Tratu txarrak ematen duenak tratu txarrekin jarraitzeko seme-alabak objektu gisa hartzen dituen indarkeria-modua. Era berean, Duluth Ereduaren arabera, erakundeek eusten diote indarkeria modalitate horri,

aita bortitzarekin harremanetan jartzea ahalbidetzen eta errazten baitute (emakumeen testigantzak gutxietsiz, seme-alaben testigantzak entzungor eginez eta tratu txarrak ematen dituen aitari zaintza emanaz), adingabeen ongizatearen eta segurtasunaren gainetik (Vaccaro, 2022).

Kasu batzuetan, ezkontzan zehar bere seme-alabez arduratu ez ziren eta interesatu ez ziren gizonak, dibortzioaren unean, zaintza partekatua eskatzen dute edo zaintza osoa eskatzen dute, seme-alaben bitartez emakumearen gaineko kontrola mantentzeko eta botere osoa izaten jarraitzeko. Gizon horiek, gogorkeria erabiltzen jarraitzeko modua aurkitzen dute emakumeentzat zaugarriena den alderdiaren bitartez, haien seme-alabak (Vaccaro, 2022).

Aipatzekoa da, biktimek genero-indarkeriatik irteteko aurkitzen duten irteera eramangarrienetako eta mehatxu gutxien eragiten dituenetako bat dibortzioa dela, eta ez salaketa judiziala. Genero-indarkeriari buruzko Makro-inkestaren arabera (2020), indarkeria jasan duten eta salatu ez zuten emakumeen % 77,4k bikotekidearekin harremana hautsi zuen. Hortaz, dibortzio-prozesu gatazkatsu horietan, seme-alabekin, administrazio judizialak adierazle guztiak ondo ikuskatu eta berrikusi behar ditu, bisitak, baimenak eta zaintza-araubidea baloratu ahal izateko (Vaccaro, 2022; Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género, 2020).

Beraz, indarkeria bikarioko kasu asko antzeman zitezkeen dibortzio edo banaketa prozesuetan ematen diren adierazleak ondo aztertu izan balira: banandu ondorengo gizonen jokabidea, alabek aitarekiko duten jarrera, osasun-zentroetako txostenak, mehatxuak, adingabeen eta ingurukoek lekukotzak.

Azkenik, Sonia Vaccarok (2022) indarkeria bikarioaren inguruan gauzatutako ikerketan islatzen da, halaber, banantzea/dibortzioa izan dela adingabeak hiltzeko arrazoietakoa bat. Kasu guztien % 52an ikusten da banantzea edo dibortzioa ez onartzea izan dela krimena eragin duten arrazoietakoa bat. Eta erailketen % 13 emakumeak harremanaren amaiera planteatzen zuenean gertatu zen (Vaccaro, 2022). Hortaz, dibortzioa/banaketa edo emakumeak hau planteatzea indarkeria bikarioa muturrera heltzeko arriskuetako bat da.

4. Ustezko Gurasoen alienazioaren sindromea (uGAS): genero-indarkeriako eta indarkeria bikarioko kasuetan duen eragina.

“*Síndrome de Alienación Parental*” (SAP) terminoa edo euskaraz, “*Gurasoen Alienazioaren Síndromea*” (GAS) Richard Alan Gardner mediku psikiatra estatubatuarrak sortu zuen, 1985ean. Gardnerren arabera, “*Síndrome*” hori amak egiten duen garun-garbiketa bat da, semea edo alaba aitaren aurka jartzeko (Gardner, 1985).

Era berean, Gardnerrek zehazten du ama dela manipulazio horren erruduna, beste gurasoarekiko baztertze- edo gaitzespen-jokabideak eragitearen erantzule bakarra. Halaber, haurren zaintzaren inguruko liskarren testuinguruan sortzen den haur-nahasmendu gisa definitzen du. Arazo honi aurre egiteko, Gardnerrek, GASrekin amaitzeko irtenbide bat proposatu zuen, haurraren zaintza eta jagoletza amari kentzean eta aitari ematean oinarrituta, amaren eta adingabearen arteko edozein kontaktu ezabatuz (Gardner, 1985).

Denborak aurrera egin ahala, Richard Gardnerrek ustezko sindrome hori auzitegietan kokatzea lortu zuen, zehazki seme-alaben zaintza eta jagoletza eztabaidatzen ziren dibortzio-prozesuetan, eta, batez ere, lortu zuen ustezko sindrome hori benetako argudio juridiko gisa erabiltzen jarraitzea (Escudero et al., 2008). Baina, Gallegok adierazten duen bezala, sindrome hori tratu txarren emaileak (gizonezkoak) eraikitako estrategia bat da, bizi garen gizarte patriarkalaren testuinguruan emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen jarraitzeko, biktimizazio bikoitza eraginez, berdin eragiten baitie emakumeei eta haien seme-alabei (Gallego, 2013).

Aipatzekoa da ere, ustezko Gurasoen Alienazio Síndromea (uGAS) ez dela sindrome bat, ez duelako lortu nahasmendu mentalen nazioarteko sailkapen psikiatriko bakar batean ere onartua izatea (De la Cruz, et al., 2022).

Praktika judizialean uGAS argudio juridiko gisa gehienbat erabiltzen da, gurasoak banantze edo adostasunik gabeko dibortzio prozesu batean daudenean, edo aldez aurretik amak salaketa bat jarri duenean aitak seme-alabei tratu txarrak edo sexu-abusuak eragin dizkiela salatzen. Beraz, haurren aurkako tratu txarren modu sotilenetako bat da, ia

ezezaguna, baina indarra hartzen ari dena. Egitate honek adingabeen ongizate emozionalean eta garapenean kalte larria eragiten du (Segura, 2006).

Nabarmendu behar da tratu txarrak gauzatzen dituzten gurasoek erabiltzen duten estrategia dela, eta sistema judizialaren babesa duela; izan ere, sindrome edo nahasmendu mediko gisa onartuta ez egon arren, ordenamendu juridikoek onartu egiten du, eta praktikan erabiltzen dute. Ideia hori Sonia Vaccaro psikologoak defendatzen du, eta ezartzen du uGAS dela banandu edo dibortziatu nahi duten emakumeak zigortzeko asmatzen den tresna judiziala (Vaccaro, 2018).

Estrategia horren eskema bost urratsekoa da. Lehenengoa, amak, indarkeria, sexu-abusuak eta/edo tratu txarrak salatzen ditu (bere buruarengan edo bere seme-alabei buruzkoak); bigarrena, salatuaren izaera bortitza frogatzen duten epai irmoak izan arren, epaitegietako talde psikosozialaren ebaluazioak abiapuntu izango du adingabeek amaren eragina dutela, uGASan oinarrituta; hirugarrena, epaileak erasotzailea sinetsiko du, baina berresteko, haurrei egindako abusuak edo gertakariak entzungo ditu, bai haurrak zein adituak entzuten. Eta azkenik, bosgarren urratsak, handik aurrera emakume horrek, ez du gehiago salatuko erasotzaile hori berari edo bere seme-alabei eraso, bortxatu edota tratu txarrak ematen badizkie (Vaccaro, 2016).

Lan honetan aztertzen denarekiko duen eraginari eta harremanari dagokienez, uGAS genero-indarkeria iraunarazteko beste tresna bat dela esan daiteke, indarkeria bikarioaren adibide bat izanik, izan ere, seme-alabak erabiltzen dira emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen jarraitzeko. Tratu txarrak gauzatzen dituztenek justiziak emandako erraztasunaz baliatzen dira, zeinak erasotzailearen erantzukizuna bereizten baitu, alde batera jarriz emakumearen aurkako tratu txarrak eta indarkeria, eta beste aldera, seme-alabekiko lotura (Vaccaro, 2018).

Sindromea justifikatu nahi den kasuetan, adingabeak eta amak babesik gabe geratzen dira, tratu txar berri baten biktima izanik eta ustezko sindromea babesten duten profesionalak adingabeak eta amak birbiktimizatuz. Hori horrela, egoera hau egiturazko indarkeriaren edo indarkeria instituzionalaren adibide garbia da. Horregatik, tratu txarrak gauzatzen dituztenei adingabeekiko bisitak ematen dizkieten epaiek, eta euren erabakia ustezko sindromearen terminoetan oinarritzen dutenek, eskubideen ordena aldatzen dute, gurasoek seme-alabekin

harremanak izateko duten eskubidea adingabeen interes gorenaren babesaren gainetik jartzen baitute. Adingabeek ere genero-indarkeriaren biktima direla kontuan hartu gabe (Convive Fundación Cepaim, 2020).

Azpimarratu behar da indarkeria bikarioak eta uGASak komunean duten gauza bakarriak emakumearen aurkako indarkeriak direla dela (Vaccaro, 2021).

5. Biktimen eta erasotzaileen profila

Sonia Vaccarok aurrera eramane eta Granadako Psikologia Feministako Emakumeen Elkarteak koordinatu eta editatu duen azterlan batek, muturreko indarkeria bikarioen kasuen datuen azterketari buruz ikerketa bat egin du. “*Violencia vicaria: un golpe irreversible contra las madres*” izenburuarekin, Espainiako Indarkeria Bikarioari buruzko lehen azterlana izan da, 2022ko apirilaren 4an argitaratua.

Ikerketa honen bidez, modu enpirikoan ezagutu nahi da emakumearen aurkako indarkeriaren esparruan egindako adingabeen hilketen errealitate soziala, hala nola Espainiako Indarkeria Bikarioa 2000. urtetik ikerketa hau amaitzen den egunera arte, 2021eko abendura arte, datuen arabera nabarmen handitzen ari den indarkeriaren ezaugarriak zeintzuk diren argitzeko, azaltzeko eta ulertzeko xedearekin (Vaccaro, 2022).

Azterlan honetan indarkeria horren muturreko modalitatea bakarrik ikertu da, hau da, seme-alaben hilketa, emakumea modu itzulezinean kaltetzeko. Baina indarkeria bikarioak beste forma batzuk ere hartzen ditu, beti emakumea helburu gisa hartzen dutenak (Vaccaro, 2022).

Ikerlanean, Espainian 2000. urtetik indarkeria bikarioak eragindako haurren hilketen kasu guztiak aztertu dira. Lortutako lagina indarkeria bikarioaren esparruan gertatutako 50 hilketek osatzen dute. Kasuen hautaketa aurrera eramateko, hilketa bat indarkeria bikarioetat jotzen duten aldagaien arabera egin da, hau da, genero-indarkeriako esparru batean, gizon batek emakume baten seme-alabak hiltzen dituen emakume horri kalte psikologikoa eragiteko asmoz (Vaccaro, 2022).

50 kasuen azterketari esker, erasotzaileei buruzko datuei, testuinguruarekin lotutako aldagaiei, biktimei buruzko datuei, epai judizialen analisiari eta justizian delituaren tratamenduari buruzko datuak bildu dira (Vaccaro, 2022).

Lanaren alderdi honetan bai biktimaren zein erasotzailearen profila aztertuko da, baita ikerketak jasotako beste datu batzuk.

5.1 Biktimaren profila

Biktimei buruzko azterketan ezartzen denez, biktimen % 64 5 urtetik beherakoak ziren, % 27 5 urtetik 10era bitartekoak, eta gainerako biktima adingabeen % 10 10 urtetik gorakoak. Sexuari dagokionez, % 54 neskak ziren eta % 47 mutilak (Vaccaro, 2022).

Badirudi sexuak ez duela axola, baina biktimen adin txikiak erakusten du biktima horien kalteberatasun- eta babesgabetasun-maila. Ezaugarri hori larriagotu egiten da, aita biologikoa baitzen, eta hura zaintzen ari baitzen krimenaren unean (Vaccaro, 2022).

Kasuen % 36tan, hurrek ez zuten alde zuzeneko laguntzarik eskatu, eta hori, beste arrazoi batzuen artean, biktimen adin txikiagatik azal daiteke; oro har, laguntza behar zutela adierazi ahal izateko. Batzuetan, krimen horiek ustekabean egin ziren, hau da, ez zuten alde zuzeneko indarkeriazko ekintzarik egin haien aurka, eta, beraz, ez zegoen egoera hori aurreikusteko modurik. Azterketako kasuen % 4k, biktimak helduei laguntza eskatu zuten (Vaccaro, 2022).

Azterlanaren arabera, laginaren % 14an, hurrek tratatu txarrak jasaten ari zirelako sintomak agertu zituzten, eta gehien ageri zirenak erasotzailearen jarrerari buruzko kezak edo jokabide-aldaketak izan ziren. Jokabide-aldaketei dagozkien sintoma edo zantzuen artean, erasotzailearekiko arbuioa, negar atsekabetua edo gogogabetasuna zeuden (Vaccaro, 2022).

Laginaren % 96an, profesionalen batek (psikologoak, gizarte-zerbitzuek eta abarrek) ez zuen haur horien egoerari buruzko ebaluaziorik egin, edo, gutxienez, ez da jasotzen kausa judizialean (Vaccaro, 2022).

Ikerketa honetan, laginaren kasuetako batean agerian jartzen da hiltzaileak emakumearen semea hiltzen duela, eta emakumearen ama eta aita ere hiltzen dituela momentu berean. Beste kasu batean, erasotzaileak bi anai-arreba hiltzeko asmoa du, eta helburu bat lortzen du, beste adingabea zauritua utziz. Azken horrek bizirik irautea lortuz (Vaccaro, 2022).

Ikerketa zabal hau egin duten ikertzaileek nabarmendu dute eraildako haurren daturik ez dagoela, hala nola haien jokabidea edo erasotzailearekin zuten lotura emozionala, bestek beste. Sonia Vaccarok eta ikerketa-taldeak adingabeei ematen zaien ikuspen eskasa edo ikuspenik eza salatu dute: *“las niñas y los niños son invisibles en estas causas, no existen, no se les considera, no tienen voz y por lo mismo, falla la protección que el Estado en general y las Instituciones en especial, deberían poder otorgarles. Su palabra es devaluada, al punto de silenciarla y se comete una discriminación flagrante por causa de su edad, olvidando que son seres de derecho con derechos”*(Vaccaro, 2022).

5.2 Erasotzailearen profila

Azterlanak batutako datuen eta datuen analisiaren arabera, erasotzailea, kasu gehienetan, 30 eta 50 urte bitarteko gizona da, laginaren biztanleriaren % 72 osatzen duena, eta, ondoren, 20 eta 30 urte bitarteko adin-taldea, guztizkoaren % 18 hartzen duena, batez ere espainiar nazionalitatea duena, % 68, eta % 82 eraildako adingabeen aita biologiko gisa (Vaccaro, 2022).

Erasotzaileen egoera zibilar dagokionez, delitua burutzen denean, erasotzaileen % 52 bananduta/dibortziazatuta zeuden. Kasuen % 28 elkarrekin bizi ziren, hau da, egitateak egiteko unean hildako haurren amarekin bizi ziren. % 14 banantze- edo dibortzio-prozesuan zeuden, eta hiltzaileen % 6 amaren bikotekidea zen, baina ez zegoen harekin edo haurrekin bizitzerik. Beraz, banandurik/dibortziaturik edo banantze-prozesuan dauden lagineko kasuen ehuneko aztertutako biztanleriaren % 66 da (% 52 + % 14) (Vaccaro, 2022).

Erasotzaileak biktimekin duen harremanari dagokionez, aurrean adierazi den bezala kasuen % 82an hilketaren egilea biktimen aita biologikoa da, % 16an amaren bikotekidea da eta % 2an krimena amaren bikotekide ohi batek egiten du (Vaccaro, 2022).

Substantzien kontsumoa ez da erabakigarria, laginaren % 12k baino ez zuen substantziaren bat kontsumitu hilketak egin aurretik, eta horrek esan nahi du erabat kontziente eta argi zeudela zer eta nola egiten zuten jakiteko (Vaccaro, 2022).

Azterlan honetan ez da ikusi desgaitasun intelektualik edo fisikorik dagoenik, eta hiltzailearen nahasmendu edo gaixotasun mentalen baten aurretiazko diagnostikoa duten kasuak hondarrekoak (residual) dira (% 6) (Vaccaro, 2022).

Laginaren kasu gehienetan erasotzaileek ez dute aurrekari penalik, eta aurrekari penalak badituzte, % 60tan genero-indarkeriarekin lotutako delituengatik dira. Era berean, txostenak azpimarratzen du erasotzaileek, proportzio berean, krimena egin aurretik amari edo seme-alabei min egiteko asmoa adierazi zutela, honako esaldi hauekin mehatxu eginez: *“te quitaré a los niños”*, *“ya verás lo que les pasa a las niñas”*, *“te quitaré lo que más quieres”* (Vaccaro, 2022).

Laginaren % 74an, erasotzaileak alde aurretik genero-indarkeria erabili du hurren ama den emakumearen aurka, nahiz eta emakume gehienek ez zuten gertatutakoa salatu (kasuen % 24tan baino ez zegoen alde aurreko salaketarik) (Vaccaro, 2022).

Erasotzaileak hurren aurrean duen alde aurreko jarrerari dagokionez, kasuen % 40an, erasotzaileak haurrak zaindu, oinarrizko zaintzak aurrera eramaten. Ehuneko hori, neurri batean, bananduta/dibortziazuta dauden erasotzaileen kasuan azaltzen da, haiek arduratzen baitira haurrak zaintzeaz, zaintza-lanetan ari baitira. Elkarrekin bizi diren erasotzaileen kasuan (biktima eta erasotzailea leku berdinean bizi dira), ehuneko handi bat langabezia dago, eta haiek arduratzen dira haurrak zaintzeaz, emakumeak etxetik kanpo lan egiten duen bitartean. % 24k ezaxolatasunezko edo arbuiozko jarrera zuen hurrekiko eta laginaren % 8k emakumeen, amaren, arriben edo bikotekide berriaren esku uzten zituen seme-alaben zaintzak (Vaccaro, 2022).

Kasuen % 16tan, hiltzaileek alde aurretik umeren baten aurkako indarkeria erabili zutela egiaztatzen da, normalean ondoren hilko duen semearen edo alabaren aurka (Vaccaro, 2022).

Ikerketa honetan, krimenaren modus operandia, krimenaren ondoren erasotzaileak izandako jokabideari eta genero-indarkeria zantzuei buruzko datuak ere jaso dira.

Krimenaren modus operandiari dagokionez, kasuen % 26tan krimena arma zorrotz batekin gauzatu zen, labana edo antzeko tresna batekin, eta % 22tan erasotzaileek eskuak erabili zituzten haurrak hiltzeko, adingabeak kolpatuz edo itota. Erailketen % 14an metodoen konbinatu bat erabili zen. Metodo horiek, batez ere, antsiolitikoak eta barbiturikoak erabili zituzten hasieran, eta, ondoren, beste arma motaren bat erabili zuten hilketa burutzeko. % 10ean su-armak erabili ziren, % 10ean gasak eta keak intoxikatzeagatik burutu ziren hilketak, eta % 8an uretan murgiltzeagatik burutu ziren (Vaccaro, 2022).

Testuinguruaren azterketari dagokionez, hilketa gehienak gurasoak haurrak bakarrik zaintzen ari zirenean gertatu ziren (% 48), bisita-erregimenean zeudenean (% 44) edo zaintza partekatuan zeudenean (% 4). Kasuen % 18an soilik egin zen bizikidetzan zehar. Orobat, hilketen gehiengoa hiltzailearen etxean gertatu ziren (% 42), egoera hori ikusten lekukorik gabe (% 68) (Vaccaro, 2022).

Erasotzaileak delitua egin ondoren duen jarrerari dagokionez, kasuen % 30ean hiltzaileak bere buruaz beste egin zuen hilketa egin ondoren, eta kasuen % 18an erasotzailea bere buruaz beste egiten saiatu zen. Horrela, erasotzailea hiltzen den edo bere burua hiltzen saiatzen den kasuak aztertutako laginaren % 48a izan ziren. Kasuen % 20an, larrialdi-zerbitzuei edo poliziari ematen die abisua, edo senideren bati abisatzen dio ordena horretan. % 14k hilketaren tokitik ihes egiten dute, eta atxilotzen dituzten arte, non dauden ez argitzen. % 12k gertakariak ukatu edo faltsutu nahi dituzte. Ebidentziaren aurrean, errua beste pertsona batzuei egotzen die edo egin zuenaren inguruan ezer ez duela gogoratzen esan du. Honelakoak dira erasotzaileek erabilitako eskusak: galdu dituztela esatea, beste pertsona bati errua egotea edo eraso bat izan dela simulatzen dute (Vaccaro, 2022).

Azkenik, aztertutako kasuen % 74tan emakumeen aurkako genero-indarkeria identifikatu zen (salaketarekin edo salaketarik gabe) haurrak hil aurretik. Hilketen % 2an bakarrik ez zen identifikatu haurraren amaren aurkako genero-indarkeriaren zantzu identifikaturik (Vaccaro, 2022).

6. Indarkeria bikarioa genero-indarkeriaren lege-esparruan

Atal honetan zehar, zenbait lege aipatuko dira, zehazki, emakume, adingabe edo genero-indarkeriaren biktima izan daitezkeen pertsonen babesa aurreikusten dutenak.

Lehenik eta behin, 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa aztertuko da. Jarraian, 1/2004 Lege Organikoan genero-indarkeria ematen zaion definizioari aldaketak egiten dion 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabateko babesteari buruzkoa aipatuko da.

Jarraian, 2015. urtean adingabeen babeserako sisteman eraldaketa ekarri zituzten beste hiru lege aipatuko dira: Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen dituzten uztailaren 28ko 26/2015 Legea eta uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta hirugarrenik, delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legea. Aipagarri izango da, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena.

Baita ere aipatzekoa izango da, 2017an Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna eta abenduaren 22ko 17/2020 Legea, Emakumeek indarkeria matxista desagerrarazteko duten eskubideari buruzkoa.

Bukatzeko, 2021ean argitaratutako lege batzuk aipatuko dira: Galizian, 14/2021 Legea eta Katalunian 26/2021 Lege Dekretua aipatuko dira.

Esan bezala, lehenik eta behin, aztertu behar den legea 1/2004 Genero Indarkeriaren aurkako legea da. Lege honek bere 1.go artikuluan legearen xedea eta genero-indarkeria honela deskribatzen du:

“1. La presente Ley tiene por objeto actuar contra la violencia que, como manifestación de la discriminación, la situación de desigualdad y las relaciones de poder de los hombres sobre las mujeres, se ejerce sobre éstas por parte de quienes sean o hayan sido sus cónyuges o de quienes estén o hayan estado ligados a ellas por relaciones similares de afectividad, aun sin convivencia.

2. Por esta Ley se establecen medidas de protección integral cuya finalidad es prevenir, sancionar y erradicar esta violencia y prestar asistencia a sus víctimas.

3. La violencia de género a que se refiere la presente Ley comprende todo acto de violencia física y psicológica, incluidas las agresiones a la libertad sexual, las amenazas, las coacciones o la privación arbitraria de libertad.”

Ikusi dezakegun bezala, lege honek ez zuen aipatzen indarkeria bikarioa, halaber, aldaketak izan ditu azken urteetan. Legegileak genero-indarkeriaren biktima zuzenak diren emakumeen seme-alaben ahultasuna kontuan hartu zuen. Honen adierazgarria LOko 19.5 artikuluan³ aurkitzen da, gizarte-laguntza arautzean, non adingabeak gizarte-laguntza osorako eskubidea izango dute, halaber, erasotuaren guraso-ahalaren edo zaintzan eta jagoletzan daudenean. Beraz, arreta pertsonala eta zehatza eskaini beharko zaie adingabeei, bizi izan dituzten indarkeria-egoera eragin ahal izan dituzten kalteak prebenitzeko.

1/2004 Lege Organikoa aipatuta, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabateko babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa aipatu beharra dago. Lege Organikoaren azken xedapenetako hamargarrenaren bidez egindako azken aldaketan, Genero Indarkeriaren 1/2004 Lege Organikoaren 1. artikulua aldatzen da. Aldaketa horren arabera, genero-indarkeriak barne hartzen du, halaber, emakumeei kaltea edo kaltea eragiteko asmoz haien senide edo gertuko adingabeei egiten zaien indarkeria.

Aldaketa horretan, 4. atal bat gehitzen zaio 1. artikuluari, eta bertan zehazten da, Genero Indarkeriaren 1/2004 Lege Organikoa, indarkeria bikarioa onartzen duela. Bertan ezartzen du genero-indarkeriak barne hartzen duela, halaber, emakumeei kaltea eragiteko edo kaltea eragiteko asmoz haien senide edo hurbileko adingabeei eragiten zaien indarkeria,

³Artículo 19.5 (Ley Orgánica 1/2004):

También tendrán derecho a la asistencia social integral a través de estos servicios sociales los menores que se encuentren bajo la patria potestad o guarda y custodia de la persona agredida. A estos efectos, los servicios sociales deberán contar con personal específicamente formado para atender a los menores, con el fin de prevenir y evitar de forma eficaz las situaciones que puedan comportar daños psíquicos y físicos a los menores que viven en entornos familiares donde existe violencia de género.

2017ko Estatu Itunaren 198.⁴ neurrian proposatzen zen bezala (2017ko Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna geroago aipatuko da). Atal hori honela idatzita geratu da:

“4. La violencia de género a que se refiere esta Ley también comprende la violencia que con el objetivo de causar perjuicio o daño a las mujeres se ejerza sobre sus familiares o allegados menores de edad por parte de las personas indicadas en el apartado primero.”

2015. urtera beste erreforma batzuk aurrera eramán ziren, aldaketa horiek Genero Indarkeriaren Legean eta Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan egin ziren. Konkretuki aldaketa horiek bi legeren bitartez egin ziren: haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen dituzten 8/2015 Lege Organikoaren eta 26/2015 Legearen bidez egin ziren.

8/2015 Legeari dagokionez, bere azken xedapenetako hirugarrenean, Genero Indarkeriaren Legearen artíkulu batzuk aldatzen ditu, genero-indarkeriaren biktima diren seme-alabak zuzeneko biktima gisa integratzeko. Laburbilduz, babes eta segurtasun handiagoa ematen zaie genero-indarkeriaren biktima den emakumearekin bizi diren adingabeei.

Lehenengo aldaketari dagokionez, 1.2 artíkuluak emakumez gain, seme-alabak ere barneratzen ditu, genero-indarkeriaren biktima bezala errekonozituz: *“Por esta ley se establecen medidas de protección integral cuya finalidad es prevenir, sancionar y erradicar esta violencia y prestar asistencia a las mujeres, a sus hijos menores y a los menores sujetos a su tutela, o guarda y custodia, víctimas de esta violencia.”* Aldiz, jatorrian, artíkulu horrek ez zituen adingabeak jasotzen (Yugueros García, 2016), soilik hurrengo aipatzen baitzuen: *“Por esta Ley se establecen medidas de protección integral cuya finalidad es prevenir, sancionar y erradicar esta violencia y prestar asistencia a sus víctimas”*

⁴ Medida 198 (Pacto del Estado en materia de violencia de género):

Hacer extensivos los apoyos psicosociales y derechos laborales, las prestaciones de la Seguridad Social, así como los derechos económicos recogidos en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género, a quienes hayan padecido violencia vicaria o violencia “por interpósita persona”, esto es, el daño más extremo que puede ejercer el maltratador hacia una mujer: dañar y/o asesinar a los hijos/as.

Bigarren aldaketa 61. artikuluko 2. paragrafoan egin. Honela idatzita geratzen da artikulua, *“2. En todos los procedimientos relacionados con la violencia de género, el Juez competente deberá pronunciarse en todo caso, de oficio o a instancia de las víctimas, de los hijos, de las personas que convivan con ellas o se hallen sujetas a su guarda o custodia, del Ministerio Fiscal o de la Administración de la que dependan los servicios de atención a las víctimas o su acogida, sobre la pertinencia de la adopción de las medidas cautelares y de aseguramiento contempladas en este capítulo, especialmente sobre las recogidas en los artículos 64, 65 y 66, determinando su plazo y su régimen de cumplimiento y, si procediera, las medidas complementarias a ellas que fueran precisas.”* Ikus daitekeen bezala, genero-indarkeriaren biktima direla aitortzen da eta epaileek kautela- eta segurtasun-neurriei buruz erabakia hartzeko duten betebeharra azpimarratzen da, bereziki, indarkeria jasaten duen emakumearen mendeko adingabeei eragiten dieten neurri zibilei buruz.

8/2015 Lege Organiko honen hirugarren aldaketak eragina du 65. artikuluan, adingabeen guraso-ahala edo zaintza eteteko neurriei buruzkoan, honako hau ohartarazten baitu:

“El Juez podrá suspender para el inculcado por violencia de género el ejercicio de la patria potestad, guarda y custodia, acogimiento, tutela, curatela o guarda de hecho, respecto de los menores que dependan de él.

Si no acordara la suspensión, el Juez deberá pronunciarse en todo caso sobre la forma en la que se ejercerá la patria potestad y, en su caso, la guarda y custodia, el acogimiento, la tutela, la curatela o la guarda de hecho de los menores. Asimismo, adoptará las medidas necesarias para garantizar la seguridad, integridad y recuperación de los menores y de la mujer; y realizará un seguimiento periódico de su evolución.” Artikulu hau aldatzearen helburu nagusia, adingabeak genero-indarkeriaren biktima den emakumearen ardurapean egon daitezkeenean babestu beharreko egoerak zabaltzea da.

Laugarren eta azken aldaketak 66. artikuluari eragiten dio, honela idatzita gelditzen da:

“De la medida de suspensión del régimen de visitas, estancia, relación o comunicación con los menores. El Juez podrá ordenar la suspensión del régimen de visitas, estancia, relación o comunicación del inculcado por violencia por violencia de género

respecto de los menores que dependan de él. Si no acordara la suspensión, el Juez deberá pronunciarse en todo caso sobre la forma en que se ejercerá el régimen de estancia, relación o comunicación del inculpado por violencia de género respecto de los menores que dependan del mismo. Asimismo, adoptará las medidas necesarias para garantizar la seguridad, integridad y recuperación de los menores y de la mujer, y realizará un seguimiento periódico de su evolución”.

1/2004 Legearen 65. eta 66. artikuluetan egindako aldaketak, gizarte-kolektiboen etengabeko aldarrikapenei erantzutera datoz; izan ere, kolektibo horiek antzematen zuten, genero-indarkeriaren biktima ziren emakumeen seme-alaba asko bikotekideek edo bikotekide ohiek hiltzen zituztela. Kasu gehienetan, adingabe horien aita izanik, gertakari horiek ezin saihestuz; izan ere, legeak ez zuen arautzen, orain egiten duen bezala, adingabeen guraso-ahalala edo zaintza etetea, eta adingabeekiko bisita-, egonaldi-, harreman- edo komunikazio-erregimena etetea. Horrela, pertsona zaurgarri horiei babes eta segurtasun handiagoa eskaini ahal zaie (Yugeros García, 2016). Ondorioz, argi dago, 8/2015 LOak aurrerapauso esanguratsua suposatu zuela biktima bikarioak diren seme-alaben babesari dagokionez. Adingabeen bizitza arriskuan jarri al zituzten egoerak erregulatu dira eta, bisita erregimenak esaterako.

Bestalde, 26/2015 Legearen dagokionez, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari, 12. artikuluari⁵ hirugarren paragrafo bat gehitzen dio genero-indarkeriaren edo etxeke indarkeriaren biktima baten guraso-ahalaren, tutoretzaren, zaintzaren edo harrerapean dauden adingabeek harekin jarraitu ahal izateko behar duten laguntza ematen zaiela bermatzeko.

Beraz, 26/2015 Legearen arabera, botere publikoek betebeharra dute haurren aurkako tratu txarren aurrean sentsibilizazio-, prebentzio-, laguntza- eta babes-jarduerak garatzeko. Erreforma hauek besteak beste, adingabeak genero-indarkeriaren biktima zuzenak direla

⁵ Artículo 12.3 (Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia):

Cuando los menores se encuentren bajo la patria potestad, tutela, guarda o acogimiento de una víctima de violencia de género o doméstica, las actuaciones de los poderes públicos estarán encaminadas a garantizar el apoyo necesario para procurar la permanencia de los menores, con independencia de su edad, con aquélla, así como su protección, atención especializada y recuperación.

aitortzen dute, “*adingabearen interes gorena*” kontzeptuaren edukia argituz, adingabearen eskubide guztiak erabat eta eraginkortasunez errespetatzen direla ziurtatzeko, bai eta adingabearen garapen integrala bermatzen dela baieztatzeko. Beraz, adingabeei entzunak izateko eskubidea aitortu zaie (Emakunde, 2015).

Laburbilduz, arau berriek aurretik arautua zeuden zenbait betebeharrak argitu egin dituzte eta emakumearen eta seme-alaben arteko harremanaren iraupenaren mesederako egiten dute, adingabeen babesa printzipio zuzentzaile izateko, seme-alaben ongizatea bermatzeko asmoz (Emakunde, 2015).

1/2004 Lege Organikoa baino lehen, nazioarte mailan, Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko adierazpenean aldarrikatu zen (DEDAW⁶) (1993) eta bertan ere “*Emakumearen aurkako indarkeria*” definitu zen hurrengo erara: “*Todo acto de violencia basado en el género que tiene como resultado posible o real un daño físico, sexual o psicológico, incluidas las amenazas, la coerción o la privación arbitraria de la libertad, ya sea que ocurra en la vida pública o en la vida privada*”. Bertan, adierazten da genero-indarkeria dela emakumeari kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologiko bat eragiten diona edo eragin diezaiokeena, emakumea izateagatik, bai eta mehatxuak, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa ere, bizitza publikoan zein pribatuan gertatu.

Genero-indarkeriaren fokua emakumea izan arren, egiaztatu den moduan, ez da kaltetu bakarra. Ikerketek erakusten dute emakumeenganako indarkeriak emakume horien seme-alaben osasun mentalari eta fisikoari eragiten diela. Literaturak adierazten du populazio horrek, denboran zehar, zailtasun emozionalak eta portaerazkoak dituztela (Atenciano, 2009).

Aipatu beharra dago, haurren kasuan nazioartean 2010ean jaso zen testua, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Haurren aurkako Indarkeriaren inguruko Idazkaritza Orokorra agindu zuena, “*Informe mundial sobre la violencia contra los niños y niñas*” (Sérgio Pinheiro, 2010). Txosten hau NBEak haurrak zuzenean eta modu iraunkorrean inplikatu dituen lehen ikerketa izan da. Ikerketa honetan haurrak eskubideen titularrak direla azpimarratzen da eta azterlanaren mezu nagusia haurren aurkako edozein motatako indarkeria ezin justifikatu daitekeela eta ekiditea posible dela adieraztea da. Indarkeri

⁶ The Declaration on the Elimination of Discrimination against Women. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 48/104 Ebazpena, 1993ko abenduaren 20koa.

bikarioarekin eta genero indarkeriarekin zerikusia duen atala hirugarrena da, “*La violencia contra los niños y niñas en el hogar y en la familia*”. Bertan adierazten da, nahiz eta familia haurren babeserako ingurumen aproposa izan behar den, kasu batzuetan arriskutsua izan daitekeela. Honen harira, azpitu-tuetako batean, indarkeria fisikoaren ingurukoan, haurren erailketa aipatzen da. Bertan, mundu mailako edozein motatako indarkeriaren ondorioz gertatu diren erailketak aztertzen dira, azterketaren ondorioetako bat 10 urte baino gazteagoak diren haurrek aukera gehiago dituztela, 10 urte baino nagusiagoak diren hurrekin konparatuz, familiako kideen edota harreman estua duten pertsonen aldetik indarkeria larria jasateko (Sérgio Pinheiro, 2010). Emaitza hori bat dator lanaren datu estatistikoaren atalean Espainian 2013-2022 urteen artean genero-indarkeriaren ondorioz hildako seme-alaben adinaren datuekin.

2015ean Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearekin jarraituz, lege honek lege testu bakar baten biltzen ditu delituen biktima guztien eskubideen katalogo orokorra, prozesalak eta prozesutik kanpokoak. Lege honen xedea da genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren ingurune batean dauden adingabeak biktima gisa ikusaraztea, laguntza- eta asistentzia-zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko eta babes-neurriak aplikatzeko, egoera honetan dauden adingabeen berreskuratze integrala errazteko helburuarekin.

Nahiz eta indarkeria bikarioarekin lotura zuzenik ez izan, garrantzitsua da aipatzea martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena. Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren arloan, aldaketa batzuk egiten dira Zigor Kodeak delitu mota horren biktimentzat ematen duen babes berezia indartzeko.

Lehenik eta behin, generoa diskriminazio-arrazoi gisa txertatu da 22. artikuluko 4. astungarrian: “4.) *Delitu egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriako beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu zein sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoa bada.*” Erantzukizun kriminalaren astungarritzat hartuko da, ikerketaren eta epaiketaren xede den egitatea generoaren arabera egin dela egiazta badaiteke. Horretarako, prozesu penalean egiaztatu beharko da egitateen izaera horrela izan den (Servet, 2016).

Genero-indarkeriaren barne, bai emakumeek zein adingabeek pairatzen dituzten egoeren larritasunaren ondorioz, Estatuak urteetan zehar hainbat esku-hartze eta planteamendu egiten jarraitzen du biktimak babesteko eta defendatzeko xedearekin. 2017an indarkeria matxistaren aurkako borrokaren arloan jarduera-esparrua finkatuko zuen Estatu Itun bat egiteko beharra planteatu zen (Ruiz González, 2021). Planteamendu horren ondorioz, 2017an Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna onartu zen. Bertan, eremu guztietako neurriak jaso ziren. Itun horrek gizartearen eremu guztiak hartzen ditu barne, eta Diputatuen Kongresuaren 214 neurri eta Senatuaren 267 neurri jasotzen zituen (Gobierno de España, 2019) eta lehen aldiz aitortzen da lege testu baten indarkeria bikarioa. Zehazki, 198. neurriari egingo zaio erreferentzia: *“Hacer extensivos los apoyos psicosociales y derechos laborales, las prestaciones de la Seguridad Social, así como los derechos económicos recogidos en la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género, a quienes hayan padecido **violencia vicaria o violencia “por interpósita persona”**, esto es, el daño más extremo que puede ejercer el maltratador hacia una mujer: dañar y/o asesinar a los hijos/as.”* (Gobierno de España, 2019).

Neurri honek onartu egiten dizkie indarkeria bikarioa jasan dutenei hurrengo eskubideak: laguntza psikosozialak eta lan-eskubideak, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta 1/2004 Lege Organikoan jasotako eskubide ekonomikoak (Gobierno de España, 2019).

2020an, abenduaren 22ko 17/2020 Legean (Emakumeek indarkeria matxista desagerrarazteko duten eskubideari buruzkoa); lanaren indarkeria bikarioa eta genero-indarkeria atalean adierazi den moduan, bere 4.2 artikuluan xedatzen du indarkeria bikarioa, *“consiste en cualquier tipo de violencia machista ejercida contra los hijos e hijas con la finalidad de provocar daño psicológico a la madre.”*

Bukatzeko, indarkeria bikarioaren azken gertakariak izan duten eraginaren adibide gisa, Katalunia eta Galizia izan dira fenomeno hori erregularizatzeko eta adingabeak babesteko neurriak hartzea erabaki duten Espainiako Estatuko autonomia-erkidegoetako batzuk.

Katalunian, Generalitateak, azaroaren 30eko 26/2021 Lege Dekretuaren bidez, Kataluniako Kode Zibilaren bigarren liburua aldatzea onartu du, indarkeria bikarioari erreferentzia eginez. Bertan, indarkeria bikario matxistaren kasuetan seme-alaben eta aitaren

arteko zaintza, egonaldiak, harremanak eta komunikazioak debekua adierazten da. Era berean, debekatu egiten ditu, oro har, seme-alaben eta tratu txarrak ematen dituen aitaren edo amaren arteko egonaldiak eta komunikazioak, familia-indarkeriako kasuetan. Lege Dekretuak zabaldu egiten ditu seme-alabek arreta eta laguntza psikologikoa jaso ahal izateko indarkeriazko gurasoaren baimena beharrezkoa ez izatearen kasuak.

Amaitzeko, Galizia izan da neurriak hartzea erabaki duen beste autonomia erkidegoetako bat, Galiziako Autonomia Erkidegoko 15248 Legearen bidez 14/2021 Legea, uztailaren 20koa, genero-indarkeriaren prebentzio eta tratamendu osorako Galiziako uztailaren 27ko 11/2007 Legea aldatzen duenarekin. Lege honek indarkeria bikarioaren definizioa sartzan du, eta haren artikulua batzuk eraldatzen ditu, genero-indarkeria prebenitzeko eta tratamendu egokia bideratzeko. Hau da legeak sartzan duen definizioa:

“Se define la violencia vicaria como aquella violencia que se ejerce sobre la mujer con el fin de causarle el mayor y más grave daño psicológico a través de terceras o interpositas personas y que consigue su grado más elevado de crueldad con el homicidio o asesinato de esas personas (hijos e hijas, madre, padre, pareja actual etc.).”

Lege honen bidez, iraganean lege honetan zehazten den indarkeria bikarioa jasan zuten emakumeei genero-indarkeriaren biktimen estatutua emateko, atzeraeraginezko izaera emango zaio legeari. Emakume horiek guztiak genero-indarkeriaren biktimatzat har daitezzen eta estatutu horrek eskaintzen dien babesak eman dakien. Babes hori ez zen eman bere garaian egindako prozeduretan genero-ikuspegia ez zelako aplikatu, eta indarkeria bikarioa genero-indarkeriaren adierazpen gisa ulertzen ez zelako.

7. Praktika judiziala

Sonia Vaccarok (2022) indarkeria bikarioari buruz egin berri duen lanean, epai judizialen eta justizian ematen zaien delitu-tratamenduaren azterketa aipatzen da; izan ere, ikerketa honetan aztertu diren 50 kasuetatik 31 kontuan hartu dira, horiek bakarrik baitzeuden epaiarekin dokumentatuta. Lan honek gertakari horiei zer tratamendu juridiko ematen zaien adierazten digu.

Ikerketan aztertutako kasuetan, delituen tipifikazioa honela banatzen da: delitu gehienak, % 71, erailketatzat jotzen dira. Ondoren, erailketa maltzurkeriarekin, % 23an, honen aplikazioa ematen da erailketa krudelkeria egoera larriagoa denean. Giza hilketatzat hartzen dira laginaren % 6 (Vaccaro, 2022).

Beste delitu batzuk egoteari dagokionez, erailketa, erailketa maltzurkeriarekin edo giza hilketaz bereiz, delitu bat baino gehiago epaitzen den kasuetan zein diren beste delitu horiek aztertzen da. Kasuen % 61ean erailketa/giza hilketa delitua bakarrik epaitzen da. Sententzien % 39tan, erailketa/giza hilketa delituaz aparte beste delitu batzuk epaitzen dira; kasuen % 29tan, oro har, tratu txarrekin zerikusia duten beste delitu batzuk epaitzen dira: ohiko tratu txar delituak, familia-eremuko tratu txar delituak eta/edo etxeko indarkeria. Eraildako haurren amari egindako lesio fisikoekin lotutako delituak ere epaitzen dira % 24an; kasuen % 19an, halaber, erailketa-saiakeraren bat epaitzen da, hau da, hiltzailea beste pertsona bat hiltzen saiatzen da: emakumea edo neba-arrebaren bat. Kasuen % 14an amari egindako lesio psikikoen delituak epaitzen dira. Kasuen % 5ean legez kanpoko atxiloketa, emakumeari mehatxu egitea eta bizilekua bortxatzea delituak daude (Vaccaro, 2022).

Astungarrien eta aringarrien aplikazioari dagokionez, bi astungarri nabarmentzen dira, ahaidetasun astungarria % 77 aplikatzen dena eta genero-arrazoiengatiko astungarria (astungarri hori ordenamendu juridikoan sartzen da 2015ean egindako erreformaren ostean), % 17an aplikatzen dena (Vaccaro, 2022).

Aringarriari dagokienez, epaien % 23tan aringarriak aplikatu dira; epaia jaso duten 31 kasuetatik 7tan. Aringarriak dituzten epaien % 43an, aldaketa psikikoaren aringarria aplikatzen da, eta proportzio berean egitateen aitortpenaren aringarria ere. Azkenik,

aringarriak dituzten kasuen % 14an droga-mendekotasunaren aringarria aplikatzen da (Vaccaro, 2022).

Espetxealdi iraunkor berrikusgarri ordenamendu juridikoan 1/2015 Lege Organikoarekin agertzen da, genero-astungarriarekin gertatzen den bezala. Ikerketan aztertutako epaietatik legea indarrean sartu ondoren emandakoak laginaren 12 kasu dira; horietatik, bost eraiketetan aplikatzen da espetxealdi iraunkor berrikusgarria (% 42) (Vaccaro, 2022).

8. Datu estatistikoak

Jarraian, indarkeria bikarioari eta genero-indarkeriako kasuetan hildako adingabeei buruzko lortutako zenbait erakundek bildutako datu estatistikoak ematen dira. Alde batetik, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak jasotako datuak aipatuko dira, bestetik, Banandutako eta dibortziatutako emakumeen elkarteen federazioak jasotakoak eta azkenik, 2019ko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Makro-inkestak jasotako datuak.

8.1.Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza, Genero Indarkeriaren 1/2004 Lege Organikoaren 29. artikulua⁷ ondorioz sortu zen. Erakunde horri dagokio emakumearen aurkako indarkeria mota guztien aurkako gobernuaren politika proposatzea, eta arlo horretan gauzatzen diren neurri guztiak bultzatu, koordinatu eta aholkatzea. Halaber,

⁷ Artículo 29. La Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer:

1. La Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer, adscrito al Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, formulará las políticas públicas en relación con la violencia de género a desarrollar por el Gobierno, y coordinará e impulsará cuantas acciones se realicen en dicha materia, trabajando en colaboración y coordinación con las Administraciones con competencia en la materia.
2. El titular de la Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer estará legitimado ante los órganos jurisdiccionales para intervenir en defensa de los derechos y de los intereses tutelados en esta Ley en colaboración y coordinación con las Administraciones con competencias en la materia.
3. Reglamentariamente se determinará el rango y las funciones concretas del titular de la Delegación Especial del Gobierno contra la Violencia sobre la Mujer.


urtero 2013tik aurrera amaren aurkako genero-indarkeriako kasuetan hildako adingabeei buruzko fitxa estatistiko bat ematen du.⁸

Hurrengo grafikoan 2013tik 2022ra batu diren biktima adingabeen kopurua adierazten da, azken eguneratzea 2022ko apirilaren 4a izanik. Guztira 47 adingabe erailduak izan dira euren aitaren eskutik.

2022ko datuak aipatu diren arren, lan honetan 2021eko datuak aztertuko dira, datu guztiak urte hasieratik urte amaierara biltzen dituztelako. Erailketa kopuruaz gain bestelako datu batzuk jasoko dira, hala nola, gertakaria gertatu den autonomia-erkidegoa edo hiri autonomoa, adingabeen eta ustezko erasotzaileen adin-taldea, jaioterria eta ahaidetasuna eta amaren arteko bizikidetzak, amaren tutoretza instituzionalarekin lotutako ezaugarriak, alde aurretik salaketak (amaren aldeko babes-neurriak eskatzea, ematea eta indarrean egotea), ustezko erasotzaileak urruntze-neurriak haustea eta ustezko erasotzaileen suizidio saiakerak.

1.Irudia

Espanian amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeen kopurua. 2013tik 2022ra



Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Kasuen bilakaera aldakorra izan da urteetan zehar. 2013an, datuak bildu ziren lehen urtean, 6 biktimak izan ziren guztira; 2014an, 4; 2015ean, 7 adingabeko biktimak izan ziren guztira; 2016an, aldiz, biktima bakarrera murriztu zen, baina hurrengo urtean, 2017an, 8

⁸ Genero Indarkeriaren Gobernuko Zuzendaritzaren arabera, kasu horien kontabilizazioa ez da soilik indarkeria bikarioarena, baizik eta seme-alaben hilketa guztiena, aitaren esku. Hala ere, kasu batzuetan amari min egiteko motibazioa aurreikusten da baina beste batzuetan ez.

biktimara igo zen, eta hildako gehien izan zituen urtea izan zen. 2018an ez dago aldaketa handirik, eta zifra 6 biktimatan geratu zen; hurrengo bi urteetan, zifrak 3ra jaitsi ziren 2019an, eta 3ra 2020an, baina 2021ean zifra berriro ere 7 biktimatarara igo zen. Azkenik, 2022an jasotako azken kasua.


Beraz, esan dezakegu kopurua aldatuz joan dela urteetan zehar, 2017an eraildutako adingabe gehien izandako urtea izan zen, 8 biktimekin eta adingabe eta 2016an erregistratutako biktima kopuru gutxien izanik, biktima bakar batekin. Hala ere, 2022an ere biktima bakar bat dago, ezin da ondorioztatu horrela geratuko denik, ez baita urtea amaitu eta ezin baita jakin zifra horrela geratuko den edo une batean aldatuko den.

Azken eguneraketa 2022ko apirilaren 3an Valentzian eman den kasu baten berrespenarekin dator, ustez aitak hil du bere 11 urteko semea. Kasu horretan, ustezko erasotzailearen aurkako salaketak zeuden aurretik, genero-indarkeriagatik. Ez dira zehazten, baina gertakarien unean, amak ustezko erasotzailearen gaineko salaketa jarri ondoren babes-neurriak zeuden. Ustezko erasotzailea ez zen amarekin bizi eta ez zuen suizidio-tentatibarik aurrera eraman.

Aurretik adierazi den moduan, 2022ko datuak daude baina azken eguneratzea 2022ko apirilaren 4an izan da, beraz logikoa denez 2022ko fitxa estatistikoak ez du urte osoko datuak jasotzen, urtea amaitu ez da eta. Ondorioz, 2021eko datuak aztertuko dira urte hasieratik urte amaierara jaso diren datuak kontuan hartuta. Hurrengo grafikoan 2013 eta 2021 urte bitarteko biktima adingabeen kopurua adierazten.

2.Irudia

Espanian amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeen kopurua. 2013tik 2021era



Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Fitxa estatistikoaren eta grafikoan adierazten den bezala, 2021 ean 7 adingabe hil zituzten amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz eta guztira 2013tik 46 izan dira biktima Espainian (azken eguneratzearekin 47 hildako 2022ko apirilaren 4a), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren arabera.

2021ari buruzko fitxa estatistikoak, genero-indarkeriaren aurkako gobernuaren ordezkariak emandakoak, bere bigarren atalean ezaugarri soziodemografikoen eta ustezko erasotzaileen araberrako datuak biltzen ditu.

3.Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak. Gertakaria gertatu den autonomia-erkidegoaren edo hiri autonomoaren arabera. 2021. urtea.

Grafiko honetan, gertakariak zein **autonomia-erkidegotan** gertatu ziren jasotzen da.

Tabla 2.1. Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre, por comunidad o ciudad autónoma en que se produjo el suceso. Año 2021.

Comunidad / Ciudad Autónoma	Menores víctimas mortales	
	Número	%
TOTAL	7	100.0
Andalucía	0	0.0
Aragón	0	0.0
Asturias, Principado de	0	0.0
Balears, Illes	1	14.3
Canarias	2	28.6
Cantabria	1	14.3
Castilla y León	0	0.0
Castilla - La Mancha	0	0.0
Cataluña	1	14.3
Comunitat Valenciana	0	0.0
Extremadura	0	0.0
Galicia	0	0.0
Madrid, Comunidad de	2	28.6
Murcia, Región de	0	0.0
Navarra, Comunidad Foral de	0	0.0
País Vasco	0	0.0
Rioja, La	0	0.0
Ceuta	0	0.0
Melilla	0	0.0

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

2021. urtean eman diren hilketen kopurua 7koa izan zen, 5 autonomia-erkidegotan banatzen zirelarik. Kanariak eta Madrilgo erkidegoak, bi kasu bakoitzak eta Balear Uharteak, Kantabria eta Katalunia, kasu bana bakoitza.

4.Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak eta ustezko erasotzaileak, adin-taldean arabera. 2021. urtea.

Hurrengo bi tauletan biktima adingabeen eta erasotzaileen **adinari eta jaiotza-herrialdearen** inguruko datuak ere jasotzen dira.

Tabla 2.2. Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre y presuntos agresores, según grupos de edad. Año 2021.

Intervalo de edad	Menores víctimas mortales		Presuntos agresores	
	Número	%	Número	%
TOTAL	7	100.0	7	100.0
< 1 año	1	14.3	-	-
De 1 a 2 años	2	28.6	-	-
De 3 a 4 años	1	14.3	-	-
De 5 a 6 años	1	14.3	-	-
De 7 a 8 años	1	14.3	-	-
De 9 a 10 años	0	0.0	-	-
De 11 a 12 años	1	14.3	-	-
De 13 a 14 años	0	0.0	-	-
De 15 a 17 años	0	0.0	0	0.0
De 18 a 20 años	-	-	0	0.0
De 21 a 30 años	-	-	0	0.0
De 31 a 40 años	-	-	3	42.9
De 41 a 50 años	-	-	4	57.1
De 51 a 60 años	-	-	0	0.0
De 61 a 70 años	-	-	0	0.0
De 71 a 84 años	-	-	0	0.0
85 años o más	-	-	0	0.0

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Laugarren figuran, biktima adingabeen eta erasotzaileen adinaren inguruko informazioa jasotzen da. Biktimen adinari dagokionez, adin tartea urte bat baino gutxiagoko (<1 año) biktimetatik, 11 eta 12 urte bitarteko biktimetara daude (De 11 a 12 años). Zehazki, urtebete baino gutxiagoko biktima bat, 1 eta 2 urte bitarteko bi, 3 eta 4 urte bitarteko bat, 5 eta 6 urte bitarteko bat, 7 eta 8 urte bitarteko bat eta 11 eta 12 urte bitarteko beste bat.

Erasotzaileen adinari dagokionez, berriz, 31 eta 50 urte bitartekoak dira. Zehazki, 31 eta 40 urte bitarteko 3 erasotzaile eta 41 eta 50 urte bitarteko 4.

5.Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak eta ustezko erasotzaileak, jaioterriaren arabera. 2021. urtea.

Tabla 2.3. Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre y presuntos agresores, según país de nacimiento. Año 2021.

País de nacimiento	Menores víctimas mortales		Presuntos agresores	
	Número	%	Número	%
TOTAL	7	100.0	7	100.0
España	7	100.0	4	57.1
Otro país	0	0.0	3	42.9

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Bosgarren figuran, biktima adingabeen eta erasotzaileen jaiotza-herrialdearen inguruko informazioa jasotzen da. Bertan argitzen da nola, adingabe guztien jaioterra Espainia izan zen, baina zazpi erasotzaileetatik hiruren jaioterra Espainia ez zen, beste herrialde bat baizik.

6.Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak, ustezko erasotzailearekiko ahaidetasunaren eta amaren arteko bizikidetzaren arabera. 2021. urtea

Tabla 2.4. Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre, según parentesco con el presunto agresor y convivencia de su madre con éste. Año 2021.

Tipo de relación/convivencia	Número	%
TOTAL	7	100.0
Hija/o	7	100.0
Otra relación	0	0.0
TOTAL	7	100.0
Convivían	2	28.6
No convivían	5	71.4
No consta	0	0.0

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Datu ezaugarri soziodemografikoekin bukatzeko, ustezko **erasotzailearekiko ahaidetasunaren** araberako sailkapena egin da, eta **adingabekoen ama eta erasotzailea** elkarrekin bizi ziren ala ez adierazten da.

Taulan adierazten denez, kasu guztietan erasotzaileen seme-alabak ziren biktima guztiak, baina 7 kasuetatik 5etan erasotzailea ez zen seme-alaben amarekin bizi egitateak gertatu zirenean.

7.Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeriaren kasuetan biktima diren adingabeak, amaren tutoretza instituzionalarekin lotutako ezaugarrien arabera. 2021. urtea.

Tabla 3.1. Menores víctimas en casos de violencia de género contra su madre, según características relacionadas con la tutela institucional de ésta. Año 2021.

Denuncia previa/continuación del proceso	Número	%
TOTAL	7	100.0
Con una o más denuncias previas	4	57.1
Interpuestas por su madre	4	100.0
Interpuestas por otros	0	0.0
Sin denuncias	3	42.9
TOTAL casos con denuncia previa	4	100.0
Continuación del proceso	2	50.0
No continuación del proceso	0	0.0
No consta	2	50.0

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Taula honetan, emakumearen **erakunde-tutoretzarekin** zerikusia duten ezaugarrien arabera sailkapen bat egiten da.

Kasu horietan, jaso egiten da nola 7 kasuetatik 4tan amak jarritako aurretiazko salaketa bat edo gehiago zeudela, eta bi kasutan salaketa-prozesuaren jarraipena egon zen. Hala ere, beste bietan ez dago jasota jarraipen hori eman zenik.

8.Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak, aldez aurretik salaketak jarrita. Amaren aldeko babes-neurriak eskatzea, ematea eta indarrean egotea. 2021. urtea.

Tabla 3.2. Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre con existencia de denuncias previas. Solicitud, concesión y vigencia de medidas de protección en favor de su madre. Año 2021.

Solicitud/vigencia de medidas adoptadas	Número	%
TOTAL casos con denuncia previa	4	100.0
Se solicitaron medidas	3	75.0
Se concedieron	1	33.3
No se concedieron	2	66.7
No consta	0	0.0
No se solicitaron	0	0.0
No consta	1	25.0
TOTAL casos con medidas adoptadas	2	100.0
Vigentes	1	50.0
No vigentes	1	50.0
Por renuncia de su madre	0	0.0
Por fin del período de vigencia	1	100.0
Por otros motivos	0	0.0

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Aurretiatzko salaketak zeuden lau kasuetan, eta kasu horietatik hirutan neurriak aplikatzea eskatu zen. Batean eman ziren eta beste bietan ez ziren eman.

Neurriak hartu ziren bi kasuetan, horietako batean egitateak gertatu ziren unean indarrean zeuden, baina bestean ez zeuden indarrean, indarraldiaren amaieragatik.

9 .Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz hildako adingabeak, egitateen momentuan urruntze-neurriak indarrean dituztenak eta ustezko erasotzaileak hautsi zituenak. 2021. urtea.

Tabla 3.3. Menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre con medidas de alejamiento vigentes quebrantadas por el presunto agresor. Año 2021.

Quebrantamiento de medidas de alejamiento	Número	%
TOTAL	1	100.0
Sin oposición de su madre	0	0.0
Con oposición de su madre	0	0.0
No consta	1	100.0

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Taula honetan ere, **urruntze-neurria** indarrean zuen kasu bat aipatzen da, eta ustezko erasotzaileak urratu egiten du neurri hori.

10 .Irudia

Amaren aurkako genero-indarkeria kasuetan hildako adingabeen ustezko erasotzaileak, suizidio saiakeraren arabera. 2021. urtea.

Tabla 3.4. Presuntos agresores de menores víctimas mortales en casos de violencia de género contra su madre, según tentativa de suicidio. Año 2021.

Tentativa de suicidio	Número	%
TOTAL	7	100.0
Suicidio consumado	5	71.4
Tentativa no consumada	0	0.0
No hubo tentativa	2	28.6

Iturria: Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza

Fitxa estatistikoarekin amaitzeko, ustezko erasotzaileen **suizidio eta suizidio saiakerei buruzko datuak** biltzen dira.

Taulan ikus daitekeenez, 2021ean izandako 7 kasuetatik bostetan ustezko erasotzaileak bere buruaz beste egin du (suicidio consumado), eta beste bietan ez zen saiakerarik egin.

8.2 Federación de Mujeres Separadas y Divorciadas

Banandutako eta Dibortziatutako Emakumeen elkarteen Federazioak 2021ean genero-indarkeriaren biktima diren 8 adingabe hildako zenbatu ditu guztira. Elkarte honek kasuen zerrenda bat egiten du eta hauei buruzko informazioa ematen du (Federación de Mujeres Separadas y Divorciadas, 2021):

- Abril, 3 urtekoa, Lavapiés (Madril). Polizia Nazionalak hilda aurkitu zituen adingabea eta 47 urteko aita. Egitate honek aurrera eraman ziren, amak alaba aitarekin harremanetan jartzerik ez zuela nahi jakinarazi ostean. 2021/12/31.
- Biktima, 11 hilabetekoa (ez da izenik adierazten), Liaño (Kantabria). Aita urruntze-agindua hautsi zuen, eta alaba eta bikotekide ohia hil zituen labankadaz. 2021/12/19.
- Biktima, 9 urtekoa (ez da izenik adierazten), Lardero (Errioxa). Adin ertaineko gizon bat atxilotu zuten, adingabearen heriotza egotzita. Atxilotuak 1998an espetxe-zigorra bete zuen hilketa delituagatik. 2021/10/28.
- Biktima, 2 urtekoa (ez da izenik adierazten), Bartzelona. Mossoek Bartzelonako hotel batean 2 urteko adingabea aurkitu zuten, aitak hil zuen. Gurasoak 8 egun zeramatzaten bananduta gertakariak gertatu zirenean, eta amak berak eman zion abisua poliziarri, haurraren aitaren mehatxuzko mezuak jaso ondoren. Aste batzuk geroago, aitaren gorpua Prat de Llobregateko aireportutik hurbil aurkitu zuten. 2021/08/25.
- Olivia, 6 urtekoa, Tenerife (Kanariar Uharteak). 37 urteko Tomas Gimeno, adingabearen aita zena neska bahitu eta geroago neskatoaren gorpua aurkitu zuten Guardia Zibilak. Gertakariak aurrera eraman ziren, Tomas Gimenok bere emazte

ohiari bere alabak (beste alaba bat ere bahitu zuen baina ez da honen gorpua aurkitu) ez zituela itzuliko eta berriro ez zituela ikusiko ohartarazi ostean. 2021/06/11.

- Biktima, 6 urte (ez da izenik adierazten), Sao Paulo (Brasil). 53 urteko espainiar batek, Interpol bere bila ari zena, bere alaba hil eta bere buruaz beste egin zuen hotel bateko logelatik, hutsera bota zen bere alabarekin batera. 2021/06/06.
- Biktima, ez dago izenik, 7 urte, Pobra (Mallorca). Ali Khouchek, hiru hilabeteko bikotekide ohia eta bere semea hil zituen. 2021/05/18.
- Biktima, 10 urtekoa (ez da izenik adierazten), El Molar (Madril). 48 urteko gizon batek bere alaba eta emaztea hil zituen, gauean haien aurka tiro eginda. Hurrengo egunean, etxea erre nahi izan zuen eta gero bere buruaz beste egin zuen. 2021/03/09.

Banandutako eta Dibortzizatutako Emakumeen elkarten Federazioak, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak bezala, 2022 ari dagokionez, beste kasu bat aurreikusten du. Jordi, 11 urte zituena eta Sueca-n bizi zena (Valentziako Erkidegoa), bere aita 47 urteko José Antoniok, labankadaz hil zuen semea judizialki esleituta zuen asteburuan. Erasotzaileak, adingabearen amarengandik urruntzeko agindua zuen, tratu txarreatatik salatu zuelako. Egitateak 2022ko apirilaren 3an gertatu ziren (Federación de Mujeres Separadas y Divorciadas, 2022).

8.3 2019ko Emakumeen Indarkeriaren aurkako Makro-inkesta (Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2019)

Emakumeen Indarkeriaren aurkako Makro-inkesta (La Macroencuesta de Violencia contra la Mujer) Espainian indarkeria-mota honi buruz egiten den estatistika-eragiketarik garrantzitsuena da. Azterlan honen bidez, emakumearen aurkako indarkeriaren hedapenari eta formei buruzko ikuspegi zehatza eta egungoa eman nahi da, bai eta indarkeria horrekin lotutako hainbat alderdiri buruzkoa ere.

Genero-indarkeriak ez dio emakumeari bakarrik eragiten, ondorio garrantzitsuak ditu seme-alabengan edo etxean bizi diren beste adingabe batzuegan ere. Ikerketa aurrera eraman

zen momentuan 1.678.959 adingabe bizi ziren emakumeak bikotekidearengan indarkeria motaren bat (fisikoa, sexuala, kontrola, emozionala, ekonomikoa edo beldurra) jasaten ari ziren etxeetan. 2019an Berdintasun Ministerioak egindako inkesta honetan, amaren aurkako indarkeria ikusten duten adingabeei buruzko datuak biltzen dira; kasu batzuetan, adin txikikoengana estrapolatzen dela adieraziz (Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género, 2020).

Indarkeria fisikoa, sexuala edo emozionala jasan duten edo bikotekideren baten beldur izan diren emakumeen % 89,6k, seme-alabak zituzten indarkeria-gertakariak gertatu zirenean. Inkesta aurrera eramatean emakume horiek adierazi zuten bere seme-alabek indarkeria zuzenean ikusi edo entzun zutela. Emakumeek adierazten zuten seme-alabak adingabeak zirela indarkeria-gertakariak gertatu zirenean, eta baieztatzen dute seme-alabek indarkeria bera jasan zutela bikotekidearen eskutik (Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género, 2020). Hori dela eta, batzuetan adingabeak ere barneratuak egoten dira genero-indarkeriako kasuetan, zuzenean edo zeharka biktima izanik.

Makro-inkesta honek zuzenean indarkeria bikarioari buruzko daturik ematen ez digun arren, arazoaren garrantziaz jabetzeko datu garrantzitsu batzuk erakusten ditu. Aurretik aipatu den bezala, indarkeria bikarioa ez da hurrak hiltzearekin hasten, beste jokabide batzuekin hasten da. Beraz, genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeen inguruko datuak kontuan hartzea beharrezkoa da. Arrisku egoerak identifikatzeko eta arazoaren munta zein den jakin ahal izateko.

ALDERDI PRAKTIKOA: SENTENTZIEN AZTERKETA

Atal honetan, bost epai aztertuko dira, indarkeria bikarioaren ezaugarriak ezagutzeko helburuaz. Guztiek amankomunean duten ezaugarria hilketa gauzatzeko motibazioa da: motibazio nagusia adingabekoen bidez amari kalte egitea dela (seme-alaba biologikoak izan ala ez).

Hurrengoak dira aukeratutako epaiak: Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 157/2017 sententzia, Almeriako Probintzia Auzitegiko 258/2018 sententzia, A Coruñako Probintzia Auzitegiko 484/2018 sententzia, Valentziako Probintzia Auzitegiko 455/2019 sententzia eta Auzitegi Goreneko 540/2020 sententzia. Hemendik aurrera, Probintzia Auzitegia PA bezala aipätuko da eta Auzitegi Goreneko sententzia, AGS bezala eta Auzitegi Gorena, AG bezala azalduko da.

Bost epai horien analisi sakonarekin hasi aurretik, indarkeria-mota hori testuinguruan kokatzeko eta tratatzeko aurrekari izan diren hiri kasu nabarmendu behar dira. Kasu horiek eta, batzuetan, haien epaiak oso lagungarriak izan dira indarkeria bikarioak duen garrantzia ikusteko, egoera prebenitu eta adingabeak babestu ahal izateko, eta, azken instantzian, adingabeen gurasoek egindako erailketa-kasuak epaitzeko.

Lehenik, aipatzekoa da José Bretónen kasua, Espainian seme-alaben erabilera instrumentalari buruzko kontzientziazioa ekarri zuen lehen kasuetako bat izan baitzen, genero-indarkeriaren barne. 2011n, Jose Bretonek bere bi seme-alabak hiltzeko ideia aurrera eramane zuen, haien amaren aurkako mendeku gisa, amak ezkontzarekin amaitzeko eta haurrekin bizitzeko erabakia hartu zuelako. Kordobako Audientzia Probintzialak emandako sententzian frogatuta geratu zen Bretonek seme-alabak hiltzeko asmoa zuela, hainbat prestaketa egin baitzituen, hala nola erregai-kantitate handiak batzea edo haurrak lasaitzeko sendagai antsiolitikoak eta antidepresiboak erostea. Era berean, egitateak aurrera eramane baino egun batzuk lehenago bere ilobekin esperimentu bat ere egin zuen koartada bat izateko, parke batean desagertu izanaren simulazioa eginez. Bi erailketa-deliturengatik kondenatu zuten, ahaidetasun-astungarriarekin eta delitu-itxurak egiteagatik; guztira, 40 urteko espetxealdia eta bederatzi hilabeteko isuna ezarri zioten (AGS 587/2014).

Bigarrenik, Espainian kasu ezagunen artean Ángela González Carreñorena aurkitzen da. Kasu honetan, Angelaren senarra, Felipe Rascón, tratatu txarreatik 50 aldiz baino gehiagotan salatu ondoren, bien alaba, Andrea Rascón González, 7 urtekoa, bisita-erregimen batean zegoela hil zuen. 11 urte egon zen Ángela González Espainiako Estatuaren aldetik erreparazioa lortu nahian, eta barne bide guztiak agortuta, Angelak bere kasua salatu zuen NBE nurrean. 2014an, Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatze Komiteak (CEDAW) erabaki bat hartu zuen, Espainia arduragabekeriagatik zigortu. Kondenaren ondoren, gobernuak behin eta berriz uko egin zion neurriak betetzeari, Nazio Batuen irizpenak lotesleak ez zirela esanez. Geroago, Auzitegi Gorenak zehaztu zuen Espainiako Estatuak bete egin behar zituela Espainiak berretsitako giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeen gomendioak. Espainiako Estatuaren kondena 600.000 eurokoa izanik.

Hirugarrenik eta azkenik, aipatzekoa da Tenerifeko Olivia eta Anna kasua, 6 eta 1 urtekoak. Tomas Gimeno, neskatoen aitak ez zituen alabak itzuli bikotekide ohiarekin adostutako egunean, 2021eko apirilaren 27an, eta telefonoz abisatu zion ez zituela berriro ikusiko, ezta bera. Argitu egin da, amaren aurkako mendeku gisa egin zuela, banantze-izapideetan baitzeuden. Lehenengo minututik, Guardia Zibilak arrisku handikotzat jo zuen desagertze hori. Poliziak eta erreskate-taldeak Olivia eta Anna aurkitzen saiatu ziren, eta azkenean, Olivieren gorpua 2021eko ekainaren 10ean aurkitu zuten itsasoan.

Ondorengo paragrafoetan, hautatu ditudan 5 epaien azterketan zentratuko gara. Lehenik, 5 kasu horien azalpen orokor bat emango da eta ondoren datu zehatz batzuetan oinarrituko gara, hala nola: kalifikazio penalak, honen barne ezarritako zigorrak eta zigorren iraupena eta erantzukizun kriminala aldatzeko inguruabarrak, motibazioa, biktimen profila (adina eta jaioterria), erasotzailearen profila (adina, jaioterria eta buruaz beste egitea edo bere buruaz beste egiten saiatzea), erasotzaile eta biktimen arteko ahaidetasuna, afektibitate-eta bizikidetzaren harremanak, aurretiazko salaketak eta bestelako kautela-neurriak.

Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian deskribatutako egitateetan Franciscak dibortziatzeko asmoa jakinarazi zion akusatuari, Olegariori. Akusatuaren erreakzioa seme-alaben aurrean *"me voy a quitar de en medio, me voy a tirar al monte no me vais a volver a ver"* adieraztea izan zen. Motxila prestatzen hasi zen, etxetik alde egiteko borondatea argi utziz.

Akusatuak ez zuen dibortzio hori nahi, eta saihesten saiatu zen. 2011ko azaroaren 19an labana batekin autolesionatu zen, ebaki batzuk eginez, eta, horregatik, Donostia Ospitaleko Psikiatria Zerbitzuan sartu zen 2011ko azaroaren 23ra arte. Ospitalea uztean, akusatua bere amaren etxera joan zen bizitzera, Donostian. Hurrengo egunetan Franciscarekin harremanetan jartzen saiatu zen, bai zuzenean berarekin, zein beste pertsona batzuen bitartez, horien artean Calixto bere semearen bitartez (adingabea).

Akusatuak adierazi zuen, gutun bat idatzi ziola Franciscari, eta telefonoz deitzen ziola. Dei horietan, 24 urte zirela elkarrekin eta 4 seme-alaba zituztela adierazten zion. Akusatuak mezuak bidaltzen zizkion Franciscari Calixtoren bitartez, Olegario eta Calixto ikusten baitziren. Mezu horien helburu nagusia, adingabea bere amari adierazi behar ziola bere aitarekin zuen harremana berreskuratu behar zuela zen (bere aitak esaten ziolako). Calixto erabiltzen zuen bere amari mezuak bidaltzeko, berarengana iristea errazagoa zelako.

2011ko abenduaren 1ean, Calixtok klaseak 08:00etan hasten zituen. 7:30 eta 7:40 artean irten zen bere izeba Asuncionek zuen erretegitik, 10 minutu inguru behar zituen eskolara oinez iristeko. Bidean akusatua Calixtorengana hurbildu zen eta etxebizitzara joateko konbentzitu zuen.

Calixtok, etxeko gela batean zegoela, zauri bat izan zuen bihotzean, 11 cm-ko luzera eta 2 cm-ko zabalera zuen hosto bateko aitzo batek eraginda. Zauri horren ondorioz hil egin zen.

Beraz, etxebizitza bere esku zegoela aprobetxatuz, Calixto hiltzeko baliatu zuen, haren ekintza oztopa zezakeen lekukorik gabe, edo haren asmo kriminala burutzea eragotz zezakeen lekukorik gabe.

Aipatu behar da akusatuak derrigortze delitu (delito de coaccion) bat gauzatu zuela Franciscaren aurka, dibortzio onartu ez zuelako. Gertakari horien ondorioz, babes-agindu bat eman zitzaien kaltetuari eta haren seme-alabei, 2011ko abenduaren 10ean.

Almeriako PAko 258/2018 epaian Carlos Jesús akusatuak Nuriarekin harreman sentimentala izan zuela argitzen da, 2014tik 2016ko ekainaren 24ra arte. Carlos Jesusek behin eta berriz eraso fisikoak egin zizkion Nuriari, hala nola ostikadak eta ukabilkadak gorputzeko hainbat ataletan, eta behin eta berriz ha irainduz. Behin, Nuria haurdun geratu aurretik, Carlos Jesusek zaplazteko bat eman zion ahoan, biak Carlos Jesusen ibilgailuaren barruan zeudela. Akusatuak telefono mugikorrak apurtu zizkion Nuriari, inorekin hitz egin ez zezan. Geroago, Nuria haurdun zegoela eta biak Carlos Jesusen gurasoen etxean zeudela, honek bizkarrean kolpe handia eman zion. Nuria gutxi gorabehera zazpi hilabeteko haurdunaldian zegoela eta biak familiaren etxean zeudela, Carlos Jesusek gogor heldu zion lepotik, ia arnasa galarazi arte. 2016ko maiatzaren 10ean, biak ospitalean zeudela, semea jaio zenean, Carlos Jesusek Nuria izutu zuen, haurra hilko zuela esanez. 2016ko maiatzaren 10etik ekainaren 23ra bitartean, Carlos Jesusen gurasoen etxean, hark behin eta berriz adierazi zuen berriki jaiotako bien haurra hilko zuela.

2016ko ekainaren 24an, 13:30ean, Carlos Jesusek buruan eta aurpegian jo zuen Nuria, erasoa Carlos Jesus eta Nuria bien etxebizitzan zeudela gertatu zen. Jasotako kolpeen ondorioz, Nuriak lesioak izan zituen.

Erailketa-delituagatiko akusazioari buruz, 2016ko maiatzaren 10ean, Nuriak eta Carlos Jesusek Rosendo izeneko seme bat izan zuten eta 2016ko ekainaren 24an, 13:30ean, bikotea etxebizitzan zeudela, eta Nuriak Rosendo haurtxoa besoetan zuela, Carlos Jesusek ezustean haurra kendu eta lurrera bota zuen bi aldiz, haurrak kolpe bana jaso zuen buruan. Carlos Jesus hirugarren aldiz saiatu zen haurra lurraren kontra jotzen, baina ez zuen lortu, bikotekidearen oposizioa zela eta.

Gertakari horien ondorioz, Nuriak antsietate-sintomatologia depresiboa eta trauma osteko estres-nahasmendua izan zuen. Jasotako kolpeen ondorioz, haurtxoa berehala hil zen traumatismo kraneoentzefaliko larriaren ondorioz, odoljario entzefaliko masiboarekin.

A Coruñaako PAko 484/2018 epaian hurrengo egitateak deskribatzen dira: Jose Carlos auzipetua, adinez nagusia, 2005ean ezkondu zen Felicisimarekin eta seme bat izan zuten, Estanislao, 2006an jaio zena. Felicisimak 2008ko urriaren 20an utzi zuen bere semearekin familia bizilekua, eta ondoren dibortzio-demanda jarri zuen.

Jose Carlosek ez zuen haustura onartu, eta data horretatik aurrera, 2008ko abenduaren 22ra arte gutxienez, mehatxuzko mezuak bidali zizkion harremanari berriro ekiteko asmoz, eta gertakari horiengatik kondenatu egin zuten familiaren esparruan etengabe derrigortzeko (delito continuado de coacciones) delitu baten egile gisa. Ezkontza 2009ko urriaren 27ko dibortzio-epaiaren bidez desegin zen.

Beste behin ere, Felicisimak salaketa jarri zuen 2013ko urtarrilaren 13an Jose Carlosen aurka, Facebook sare sozialaren eta posta elektronikoaren bidez mehatxuak egiteagatik; izan ere, artxibatze autoa eman zen, mehatxu horien egiletza egiaztatu ez zelako.

2016ko apirilaren 25ean, Nemesiok, Felicisimaren anaiak, mezu bat jaso zuen Facebooketik, Jose Carlosen izenean: *"La última palabra no está dicha en esta historia. El daño ya lo hicisteis hace tiempo y las dos únicas cosas que podían hacer daño, por suerte o fortuna, no están en vuestras manos... Todo en esta vida tiene un punto final... el caso es que nos guste a todos..."*. Anaiak ez zion mezua igorri Felicisimari, ez kezkatzeko.

Ezarritako bisita-erregimena betetz, Jose Carlosek semea familia-elkargunean hartu zuen ostiralean, maiatzaren 5ean, eta berarekin igaro zuen 2017ko maiatzaren 5etik 7ra bitarteko asteburua. Igandean, maiatzaren 7, Jose Carlosek, emazte ohiari ahalik eta sufrimendu psikiko handiena eragiteko asmoz, semea hiltzea erabaki zuen. Horretarako, arratsaldean kotxez urrutiko etxe batera joan zen, Estanislarekin batera. Bertan, pala batekin buruan hainbat kolpe eman zizkion haurrari, kolpeak heriotza eragin zuten zauriak sortuz.

Jose Carlos umearen gorpua ezkutatzen saiatu zen, are baztertuago zegoen leku batera, non zulo bat egiten hasi zen bertan uzteko, baina azkenean atzera egin zuen eta kanpoan utzi zuen.

Valentziako PAko 455/2019 epaian hurrengo egitateak deskribatzen dira: David, adin nagusikoa, Etiopiakoa 1967 urtean jaioa, 2017ko urtarrilaren 15ean, 10:00ak aldera, etxebizitzan zegoen, bere alaba Milagrosarekin batera, 2014an jaioa eta egitateen momentuan 2 urte eta 10 hilabete zituena. Haurra asteburuetan aitarekin bizi zen; izan ere, ama, Marcelina, espetxe bateko 16. moduluan zegoen, Amen Unitatean, eta han bizi zen adingabea, amarekin batera, astean zehar. Harremana auzipetuaren eta Marcelinaren artean

jarraitzen zuen, nahiz eta 2016ko azaroaz geroztik auzipetuak bere bikotekidearekiko zuen jarrera erabat aldatu zen, bikotekidearekiko etsaitasunezko portaera izanik, eta horrek atsekabe eta beldur handia eraginez, gerta zitekeenagatik kezkatuz.

Aipatutako egun eta ordu horretan, David auzipetua, bere bikotekidearekin telefonoz hitz egiten ari zela, Milagrosa alaba hiltzeko asmoz, eta Marcelina bikotekidearen osotasun psikologikoa larriki kaltetzeko asmoz, sukaldeko bi labana hartu zituen, 14 cm ingurukoak, eta oharkabean Milagrosa zegoen gelara joan zen. Adingabeari hitzik esan gabe, auzipetuak, ustekabean bi labankada eman zizkion alabari, bata bizkarrean eta bestea gorputzeko ezkerrean, adingabea defendatzeko aukerarik gabe.

Bikotekidearekin telefonoz hitz egiten jarraituz, min eta ezinegon handiagoa eragiteko, "*se está muriendo*" adierazi zuen, bikotea egoeraz jabetzeko. Akusatuak berehala utzi zuen lekua, eta adingabea etxeko jantokian geratu zen, baita erabilitako armak ere.

Udaltzaingoaren polizia-etxera joan zen, baina bertara joan aurretik Marcelinaren aitari deitu zion telefonoz hurrengo esanez: "*está muerta*" eta "*esto es regalo a todos cuando celebráis que me odiáis, regalo de vuestro cumpleaños. Esto es, mi vida no me importa*". Era berean, ertzain-etxera iristean, alaba hil zuela eta eskuak entregatuko zituela jakinarazi zion udaltzainari, eta berehala atxilotu zuen.

Gertakarien ondorioz, Milagrosak arma zuriz egindako bi zauri sarkor izan zituen. Halaber, Marcelinak, adingabearen amak, eragin psikologikoa izan zuen gertakari horien ondorioz, eta hainbat tratamendutan parte hartu zuen. Tratamendu horiek medikoak, psikologikoak eta psikiatrikoak izan dira. Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko Indarkeria Matxistaren Biktimei Laguntza Psikologikoa emateko Programan sartzeko baloratu zuten.

AGko 540/2020 epaian hurrengo egitateak deskribatzen dira: 2017ko azaroaren 12an, 16:30ak aldera, Luis Miguel, Alzira herriko familia etxean zegoen, bertan, Manuela emaztearekin eta beste bi pertsonekin bizi zen. Etxebizitzan inor ez zegoen une batean, Marta alaba lo zegoen logelara joan zen. Marta 2015ean jaio zen, eta ez zen bere alaba biologikoa. Logelara sartu eta lepoa moztu zion, zeraman sukaldeko aizto batekin, kontzienteki eta bere bizitzarekin amaitzeko borondate osoz.

Luis Miguelek, Marta hil ondoren, bere burua etxeko balkoitik behera bota zuen, ibilgailu baten gainera erorita.

Horren ondorioz, haurra odoljario akutuaren ondorioz hil zen, eragindako zauri zerbikal sakonaren ondorioz. Luis Miguelek bere emazteari eta adingabearen amari kalte psikiko larria eta konponezina eragiteko egin zuen aurreko gertaera, dibortziazeko asmoa jakinarazi ondoren. Gertakari horien ondorioz, Manuelak tratamendu psikiatriko eta psikologikoa behar du bere osasunerako.

1. Kalifikazio penalak

Jarraian ikusi ahal izango den bezala, sententzia guztietan akusatuak erailketa delitu burutu edo saiakeragatik kondenatuak izan dira eta batzuetan baita ere tratu txarrenagatik.

Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian akusatua ZKko 139.1 artikuluko erailketa delituagatik kondenatua izan zen.

Almeriako PAko 258/2018 eta A Coruñaako PAko 484/2018 , 2018ko bi epaietan, erailketa delituagatik kondenak ezarri zitzaizkien akusatuei (ZKko 138 y 139 art.). Era berean, beste arau-hauste batzuegatiko kondenak ezarri ziren. Almeriako sententzian, emakumearen aurkako indarkeriaren esparruan ohiko tratu txarren delituagatik (ZKko 173.2 art.) eta emakumearen aurkako indarkeriaren esparruko lesio-delituagatik (ZKko 153.1 y 3 art.) kondenatua izan zen. A Coruñaeko epaian, erailketaz aparte, emakume ohiaren gaineko lesio psikikoen delituarekin (ZKko 148.4 art.) kondenatua izan zen.

Valentziako PAko 455/2019 epaian akusatua erailketa saiakera delituagatik (ZKko 138, 139.1 eta 140.1.1 art.) eta baita lesio psikikoen delituagatik (ZKko 147.1 eta 148.4 art.) izan zen kondenatua.

AGko 540/2020 sententzian ere akusatua erailketa delituagatik izan zen kondenatua (ZKko 139.1.1.3 eta 140.1.1.3 eta 140 bis art.) eta lesio psikiko delituagatik (ZKko 148.4 art.).

1.1 Ezarritako zigorrak eta zigorren iraupena

Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian erailketa-delituagatik, 19 urteko espetxe-zigorra ezarri zen. Era berean, desgaikuntza berezia seme-alaben gaineko guraso-ahala egikaritzeko, kondenak irauten duen bitartean, eta seme-alaben amari eta seme-alabei hurbiltzeko debekua aplikatzen da, 500 metroko erradioan eta 21 urtez haiekin edozein bide erabilita komunikatzeko debekua, espetxe-zigorrarekin batera betez.

Almeriako PAko 258/2018 sententzian:

- 1) Emakumearen aurkako indarkeriaren esparruan ohikoa den tratu txarren delituagatik (ZKko 173.2 art.), bi urteko espetxe-zigorra, sufragio pasiborako eskubidea egikaritzeko desgaikuntza bereziarekin batera, denbora berean; armak edukitzeko eta eramateko eskubideaz gabetzea, hiru urte eta bederatzi hilabetez, lizentziaren indarraldia galaraziz; eta hiru urte eta sei hilabetez, hirurehun metro baino gutxiagora hurbiltzea Nuria, haren bizilekua eta lantokira, bai eta harekin edozein bide erabilita komunikatzeko ere.
- 2) Emakumearen aurkako indarkeriaren eremuko lesio-delituagatik, hamar hilabeteko espetxe-zigorra, sufragio pasiborako eskubidea egikaritzeko desgaikuntza bereziarekin batera. Aurreko delituan hartutako neurri berberak, baina 3 urteko iraupenarekin.
- 3) Erailketa-delituagatik, hogeita bat urteko espetxe-zigorra, aldi berean erabateko desgaikuntza erantsita, eta hogeita bost urterako debekatzea hirurehun metro baino gutxiagora hurbiltzea Nuria, haren bizilekua eta lantokira, edozein komunikaziorekin batera.

A Coruña PAko 484/2018 kasuan, erailketa-delituagatik espetxealdi iraunkor berrikusgarria aplikatu zen. Baita Felicísima, bizileku, lantoki edo beste edozein lekutara 1500 metro baino gutxiagora hurbiltzeko debeku-zigorra eta edozein bide erabiliz horrekin komunikatzeko, espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren benetako iraupena baino 5 urte gehiagoz.

Valentziako PAko 455/2019 kasuan, saiakuntza graduan aurrera eramandako erailketa delitu batengatik eta lesio psikikoen delitu batengatik zigortua izan zen. Erantzukizun kriminala aldatzen duen zirkunstantziak aurreikusten dira, ahaidetasunaren inguruabar mistoa (ZKko 23.art) astungarri gisa, eta genero arrazoiengatik betearazi izanaren inguruabar astungarria (ZKko 24.art).

Hortaz, ezartzen diren zigorrak hurrengoak dira: Aurrean azaldutakoaren arabera, David-ri 28 urteko espetxe-zigorra ezartzen zaio, kondenak irauten duen bitartean erabateko desgaiakuntza ezartzen zaio, biktimengana — Milagrosa eta Marcelina — beren bizilekura, ikastetxera, lantokira edo 2.000 metrotik beherako distantziara dauden edo joateko maiztasuna duten beste edozein tokitara hurbiltzeko debekua ezartzen zaio 37 urtez, bai eta 37 urtez biktimekin komunikatzeko debekua ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan sartzea, bertan egotea eta bertan bizitzeko debekua 37 urtez, eta kontrol telematiko bidez kontrolatuz. Era berean, Milagrosa adingabearekiko guraso-ahala kentzea eta zaintzapeko askatasunaren neurria ezartzen da 7 urtez.

AGko 540/2020 sententzian, erailketa delituagatik eta emakumearen aurkako lesio psikikoengatik espetxealdi iraunkor berrikusgarria ezarri zaion. Kasu honetan, erantzukizun kriminala aldatzen duten zirkunstantziak aurreikusten dira, ahaidetasunaren inguruabar mistoa (ZKko 23.art) astungarri gisa.

Zigortuari debekatu egiten zaio Manuela emaztearengana hurbiltzea, bai eta haren bizilekura, lantokira eta maiz joaten den lekuetara ere, 1.000 metrotik beherako distantziara, eta harekin edozein bide erabilia komunikatzea, bi kasuetan, espetxealdi iraunkor berrikusgarriko zigorraren iraupena baino 10 urte gehiagoz. Biktimarengandik beste 5 urtez urruntzeko zaintzapeko askatasunaren neurria ezartzen zaio.

1.2 Erantzukizun kriminala aldatzeko inguruabarrak

1.2.1 Inguruabar salbuesleak

Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian ez dira salbuesle oso edo osatugaberik aurreikusten.

Almeriako PAko 258/2018 eta A Coruña PAko 484/2018 epaietan ez zen salbueslerik aplikatu (ez osoa ezta osatugabea), nahiz eta akusatua defentsak asaldura psikikoaren salbuesle osoa aplikatzea eskatu zuen (ZKko 20.1 art)

A Coruña PAko 484/2018 epaian parte hartu zuten psikiatra publikoek adierazi zuten akusatuak nortasunaren nahaste mistoa zuela, eta horrek bere izateko eta bizitzeko era baldintzatzen zuela, nahiz eta ez zituen bere nahimen-askatasuna eta ahalmenak deuseztatzen. Beraz, bere ekintzez jabetzen zen eta bere borondatea ez zegoen ukituta erailketa aurrera eramanean. Ondorioz, ez zen salbueslea aplikatu.

Valentziako PAko 455/2019 sententzian akusatua defentsak asaldura psikikoaren salbuesle osoa aplikatzea eskatu zuen (ZKko 20.1 art). Auzitegiko peritu-psikiatrikoek akusatuari ez zioten inolako alterazio edo anomalia psikikorik aurkitu bere alabaren erailketa aurrera eramanean. Beraz, salbuesle osoa ez da kontuan hartzen zigorra erabakitzeke orduan.

AGko 540/2020 sententzian ez dira salbuesle oso edo osatugaberik aurreikusten.

1.2.2 Inguruabar aringarriak

Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian ez da inguruabar aringarririk aurreikusten.

Almeriako PAko 258/2018 kasuan, ez ziren onartu defentsak eskatutako aringarriak, ez aitorpen aringarria (ZKko 21.4 art) ezta kaltea konpontzearen aringarria (ZKko 21.5 art).

Aitopenaren aringarriaren inguruan, ohiko tratu txarren delituari dagokionez, akusatuak errealitatea uka zuen momentu oro. Lesio-delituari dagokionez, akusatuak ez zuen inoiz onartu biktimari lesioak eragin izana, frogatutzat jo ziren lesioak ukatu zituen. Bakarrik onartu zuen biktimari kolperen bat eman ziola. Eraiketa delituari dagokionez, akusatuak ez zuen onartu adingabea jo izana heriotza eragin arte, baizik eta behin eta berriz mantendu zuen gertatutakoa ez gogoratzea, soilik haurra lurrean ikusi zuela eta alde egin zuela. Baina adierazpen hau ez da egiazkoa. Beraz, ez da aitopen aringarria aplikatzen.

Kaltea konpontzearen aringarriari dagokionez, epaimahaiak frogatutzat eman zuen akusatuak 3.000 euroko kalte-ordaina eman ziola Nuriari bere egintza guztiengatik. Epaimahiak baita adierazi zuen nola, kontuan hartzen bazen eragindako lesioengatik eta, batez ere, kalte-ordainaren hartzaileren semea hiltzeagatik ordaintzen ari zela, kopuru hori guztiz eskasa zela. Beraz, ez da kaltea konpontzearen aringarria aplikatzen.

A Coruñako PAko 484/2018 kasuan, defentsak kaltea konpontzeko aringarria (ZKko 21.5 art) hautemateko eskatu zuen, baina hori ere baztertu egin zen.

Valentziako PAko 455/2019 sententzian, onartu egiten da defentsak eskatutako aringarria, konkretuki, aitopen aringarria (ZKko 21.4 art). Defentsak salbuesle osoa aplikatu ezin bazen ZKko 21.4 artikulua aringarritzat hartzeko eskatu zuen.

Era berean, epai honetarako astugarriak ere aurreikusten ziren. Konkretuki bi inguruabar astungarri eta aringarri bakar bat. Aringarriak eta astungarriak daudenean, zentzuz baloratzen dira zigorra indibidualizatzeko. Kasu honetan, larritasun oinarri kualifikatua nabarmena zen, bi astungarri aurreikusten ziran eta. Ondorioz, goiko erdia aplikatu zen.

AGko 540/2020 epaian, akusatuak errekurtsua jartzeko izan dituen kasazio-arrazoiak zehazten dira, konkretuki ZKko 21.7 artikuluko alterazio psikikoaren aringarri analogikoa ez aplikatzea. Epaian argudiatzen da aringarria ez dela kontuan hartzen, gertaeren kontaketa ez baita ageri afektazio hori eta, beraz, aringarriaren aplikazioa.

1.2.3 Inguruabar astungarriak

Gipuzkoako PAko 157/2017 epaian, erailketa-delituari dagokionez, ZKko 23.artikuluaren aurreikusten den ahaidetasun-inguruabar mistoa aplikatzen da, kasu honetan astungarri bezala.

Almeriako PAko 258/2018 sententzian, erailketa-delituari dagokionez, ZKko 23.artikuluaren aurreikusten den ahaidetasun-inguruabar mistoa aplikatzen da, kasu honetan astungarri bezala.

A Coruña PAko 484/2018 sententzian, generoaren (ZKko 22.4 art.) astungarria eta ahaidetasun inguruabar mistoa (ZKko 23 art.) astungarri bezala aipatzen dira, honek aplikagarri izanik. Kasu honetan, epaimahiak honela justifikatu zuen genero astungarriaren aplikazioa: *“el Jurado estimó probado por unanimidad que el acusado ejecutó la muerte de su hijo por razones de dominación y desprecio sobre la mujer, en concreto sobre la que había sido su esposa.[...] De tales pruebas se desprende una específica motivación del acusado, que no aceptó la ruptura de la relación y que reaccionó causando la muerte de su hijo para dañar de la forma más cruel que estaba a su alcance a su exmujer.”*

Valentziako PAko 455/2019 epaian, erailketa saiakera delituari dagokionez, ahaidetasun-inguruabar mistoa (ZKko 23 art.), astungarri bezala eta genero inguruabar astungarria (ZKko 22.4 art.) aplikatzen dira.

AGko 540/2020 kasuan, erailketa-delituari dagokionez, ahaidetasun-inguruabar mistoa (ZKko 23 art.) aplikatzen da, astungarri bezala. Valentziako Probintzia Auzitegian 2019ko urriaren 31n emandako epaiaren arabera (epai horretatik dator Auzitegi Gorenaren epai hau), argudiatzen da, alaba biologikoa ez izan arren, astungarria aplikatzen dela. Izan ere, eraildako adingabea akusatua emaztearen alaba zen, eta harekin bizi zen.

2. Erasotzaileen motibazioa egitateak aurrera eramateko

Gipuzkoako PAko 157/2017 epaiaren erailketa burutzeko motibazioa Franciscak dibortziatzeko asmoaren berri eman izana da izan zen. Sententzian zenbait alditan argi geratzen da bere semea hil zuela emaztearenganako mendeku bezala *“el acusado, como venganza contra su esposa, por la decisión de ésta de divorciarse, clavó a Calixto en el corazón, con la intención de matarle, un cuchillo de una hoja de 11 cm. de longitud y 2 cm. de anchura ”* edo geroago *“el motivo que llevó al acusado a matar a Calixto fue vengarse de su esposa Francisca , por la decisión tomada por ésta, de divorciarse de él, resulta también una conclusión lógica y coherente con cuanto llevamos expuesto.”*

Berriz ere sententziak argi uzten du nola, *“El acusado mató a Calixto para vengarse de la decisión de su esposa de divorciarse de él. No aceptó la libre decisión de su esposa y se vengó de ella, no atentando contra la misma, a quien no tenía acceso; sino contra un hijo de ambos, menor de edad, a quien sí tenía acceso. Ello incrementa considerablemente el desvalor de su criminal acción.”*

Almeriako PAko 258/2018 epaian motibazio konkretua zein den argi ez badago ere, akusatuak, semea jaio aurretik eta ondoren, argi uzten du, amari mehatxu eginez, semea hiltzeko asmoa duela. Kasu honetan, genero-indarkeriako egoera aurreikusten da: *“Alrededor del 10 de mayo de 2016, hallándose ambos en el hospital con motivo del nacimiento de su hijo, Carlos Jesús atemorizó a Nuria diciéndole que iba a matar al niño.”* Baita ere esaten da: *“Entre el 10 de mayo y el 23 de junio de 2016, en casa de los padres de Carlos Jesús, éste manifestó reiteradamente que mataría al bebé de ambos recientemente nacido.”*

A Coruña PAko 484/2018 sententziak argi eta garbi adierazten du ezkontza-haustura ez onartzea eta menderatze-testuingurua izan zela egitateak aurrera eramateko motibazio nagusia.: *“A. no aceptó la ruptura, y desde esa fecha hasta, al menos, el 22-12-2008, le mandó mensajes de contenido amenazante y alarmista con la pretensión de reanudar la relación.”*; *“Jose Carlos, con la intención de causar el mayor sufrimiento psíquico posible a su ex mujer decidió acabar con la vida de su hijo”*

Valentziako PAko 455/2019 sententzia adierazten da akusatuak emazteari min egin nahi ziola *“Le quería hacer daño a ella.”*, eta baita adierazten da amak beldurra zuela alaba aitarekin egoteko *“Tenía miedo que la niña se fuera con el padre, desde noviembre de 2016.”*

Lekuko batek, konkretuki, Justinok, biktimaren aitonak, jakinarazi egiten du 2017ko urtarrilaren 15ean jakin zuen gertatutakoaren berri, 10etan telefonoak jo zuenean eta akusatuak esan zionean *“que había matado a la niña, para que se lo digas a la puta de tu hija”* modu berean, komunikatu zuen *“era vuestro regalo de cumpleaños.”*

AGko 540/2020 sententziak aditzera eman zuen nola Luis Miguelek bere emazteari eta adingabearen amari kalte psikiko larria eta konponezina eragiteko asmoz eraman zuela aurrera alabaren erailketa emazteak dibortziazteko asmoa jakinarazi ondoren.

Udaltzaingo batek lekukotzan adierazten du akusatuak hurrengo adierazi zuela: *“que había matado a su hija para causar daño a su mujer y que sin matrimonio no había hija.”*

3. Biktimen inguruko datu batzuk: adina eta jaioterria.

Adinari dagokionez, kasu guztietan biktima nagusia adingabea zen:

- Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzia: Ez da argi uzten zein den biktimaren adina, baina bai aipatzen da adingabea zela, 16 urte baino gehiago zuena (Calixto).
- Almeriako PAko 258/2018 sententzia: 45 eguneko haurra gutxi gorabehera (Rosendo).
- A Coruña PAko 484/2018 epaia: 11 urteko haurra (Estanislao).
- Valentziako PAko 455/2019 sententzia: 2 urte eta 10 hilabeteko haurra (Milagrosa).
- AGko 540/2020 epaia: Bi urteko haurra (Marta).

Kasu batzuetan emakumea ere biktimatzat hartzen da, beste ekintza batzuk epaitu baitziren, hala nola lesio psikikoak eta/edo genero-indarkeriarekin lotutako tratu txarrak edo lesioak. Biktima guzti horiek adin nagusikoak ziren. Adierazi behar da, sententzia guztietan adingabeak erabiltzen dira amari mina sortzeko helburuarekin, beraz, emakumeak biktima dira baita ere.

Jaioterriari dagokionez, ez da epai guztietan aurreikusten baina, Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian argitzen da familiaren etxebizitza Donostian zegoela, beraz adingabea Donostian bizi zen. Valentziako PAko 455/2019, epaian ez da argitzen non jaio zen adingabea, baina bai amarekin bizi dela espetxe bateko Amen Unitatean (ez da espetxea zehazten) eta asteburuetan aitarekin familiaren etxebizitzan. Azkenik, AGko 540/2020 sententzian adierazten da familiaren etxebizitza Alzirako udalerrian zegoela, Valentziako erkidegoan, adingabea bertan bizi zen gurasoekin.

4. Erasotzailearen inguruko datu batzuk: adina, jaioterria eta bere buruaz beste egitea.

Adinari eta jatorriari dagokionez, erasotzaile guztiak adin nagusikoak ziren baina ez da argitzen kasu guztietan non jaio ziren zehazki, ezta bizilekua ere:

- Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzia: Olegario 1973an Donostia jaio zen eta egitateen momentuan bertan bizi zen. 38 urte zituen egitateen unean.
- Almeriako PAko 258/2018 sententzia: Carlos Jesus 1981an jaio zen. Ez da zehazten jaioterririk edo etxebizitzaren kokapena. 35 urte zituen egitateen unean.
- A Coruñako PAko 484/2018 sententzia: Jose Carlos 1974an jaio zen. Ez da zehazten jaioterririk edo etxebizitzaren kokapena. 43 urte zituen egitateen unean.
- Valentziako PAko 455/2019 sententzia: David 1967an jaio zen Etiopian baina egitateen momentuan Valentzian bizi zen, bere familia etxebizitzan. Ez da argitzen etxebizitzaren kokapena. 50 urte zituen egitateen unean.
- AGko 540/2020 sententzia: Luis Miguel 1989an jaio zen eta familia etxebizitzan bizi zen Alzirako udalerrian, Valentziako erkidegoan. Ez da zehazten bere jaioterria bakarrik bere etxebizitza non kokatzen den. 28 urte zituen egitateen unean.

Erasotzaileak bere buruaz beste egitea edo bere buruaz beste egiten saiatzeari dagokionez, aztertutako bost epaietatik bitan gertatzen dira egoera horiek. Konkretuki, Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian eta AGko 540/2020 epaian.

Lehenengo kasuan (Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian), egitate hauek frogatutzat deklaratu ziren:

“Las heridas punzantes observadas en el acusado son compatibles con habérselas realizado con el cuchillo (evidencia nº9) mientras que las cortantes son compatibles con habérselas realizado con una navaja de pequeñas dimensiones. Las fotos mostradas del baño adyacente al dormitorio muestran un nudo corredizo con el cinturón de un albornoz, anudado a la ducha.”

Auzitegiko medikuak aitortu zuen, *“Le apreció nueve lesiones que podrían corresponderse con la fecha de los hechos.”*; *“El acusado le dijo que se clavó en zona pectoral y abdomen con el propio cuchillo que tenía clavado su hijo y en el cuello y en el brazo izquierdo con una navaja que portaba habitualmente. Las lesiones son compatibles con ello.”*; *“Las más aparatosas y profundas son en la flexura del codo y muñeca izquierda, zonas típicas de autolesiones, aunque no afectaron a vasos importantes.”*

Frogatutako egitateak eta auzitegiko medikuaren adierazpenak kontuan hartuta, akusatuek bere bizitzaren aurka egin zezakeela pentsatzera eramanez ahal diguten zenbait ekintza ikus daitezke, labanarekin egindako ebakien bidez edo dutxari lotutako albornoz baten gerrikoarekin egindako korapiloa, esaterako.

Bigarren kasuan, (AGko 540/2020 epaian) Luis Miguelek, alaba hil ondoren, bere burua bota zuen etxeko balkoitik, ibilgailu baten gainera eroriz.

Beraz, bi kasu horietan, akusatuek beren buruaz beste egiten saiatu ziren. Lehenengo kasuan, autolesioen bidez, eta, bigarren kasuan, balkoi batetik behera bere burua botatzen.

5. Ahaidetasuna

Kasu guztietan, AGko 540/2020 kasuan izan ezik, akusatua hildako adingabearen aita biologiko zen. Aipatutako AGko 540/2020 sententzian biktima akusatua alaba biologikoa ez zela adierazten da, baina adingabearen amarekin ezkondata zegoen eta elkarrekin bizi ziren.

6. Afektibitate- eta bizikidetzaharremanak

Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian, adierazten da nola akusatua ospitalea uztean, bere amaren etxera joan zen bizitzera, eta, beraz, ez zen ez hurrekin ez emazterekin bizi. Batzuetan Calixtok (semea) eta Olegariok (aita) elkar ikusten zuten, zeren Calixtok amari, Franciscari, aitak berarekin itzultzeko esaten ziola adierazten baitzion. Gurasoek dibortziaztea erabaki ondoren, akusatuak Calixto erabiltzen zuen amari mezuak helarazteko.

Almeriako PAko 258/2018 kasuan, izatezko bikote bat zen, ezkontzaren antzeko harremana zuena, eta elkarrekin bizi ziren gertakariak gertatu ziren unean. Erlazioa 2014an hasi eta 2016ko ekainaren 24an amaitu zen (erailketaren eguna).

A Coruña PAko 484/2018 epaian argitzen da bikotea 2005. urtean ezkondu zela eta 2009ko urriaren 27an dibortzio-epaiaren bidez desaginda geratu zen ezkontza hori. Eraildako adingabeak eta amak 2008an utzi zuten familiaren bizilekua, ondoren dibortzio-demanda aurkeztu zuen. Beraz, gertakarien momentuan ez ziren elkarrekin bizi, baina adingabea eta akusatua dibortzioaren ondorioz ezarritako bisita-erregimena betetzean ikusten ziren.

Valentziako PAko 455/2019 kasuan, Marcelina, adingabearen ama, espetxearen Amen Unitatean bizi zen adingabearekin astean zehar eta asteburuetan alaba (Milagrosa) aitarekin, Davidekin, familia etxebizitzan, pisukide batekin. Elkarrekin bizi ez ziren arren, Marcelina espetxe batean preso zegoelako, Marcelinak eta Davidek beren harremanarekin jarraitzen zuten. Sententzian adierazten da nola, 2016ko azarotik aurrera, akusatua bikotekidearekiko jarrera erabat aldatu, eta haren aurkako jarrera hartu zuela. Horrek ezinegon eta beldur handia eragin zion bikotekideari, gerta zitekeenaren aurrean.

AGko 540/2020 sententzian, Luis Miguel alabarekin eta Manuela bere emaztearekin bizi zen. Bizi ziren pisuan bi logela alokatu zizkieten beste bi pertsoneri.

7. Aurretiazko salaketak eta kautela neurriak

Ondoren azalduko den bezala, 5 kasuetatik 2 kasutan genero-indarkeriarekin lotutako derrigortze delituagatik aurreko salaketak egon ziren. Horietako batean emakumea mehatxuengatik beste salaketa bat jarri zuen baina epaitegia alde batera utzi zuen. Era berean, nahiz eta aurreko salaketarik ez egon tratatu txarrak egon zirela antzeman da.

Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian epaitutako erailketa aurrera eraman baino lehen akusatuak derrigortze delitua gauzatu zuen. Beraz, aurrerik salaketa bat egon zenez, akusatua Donostiako ospitale psikiatrikora eraman zuten. Erailketa 2011ko abenduaren 1ean gauzatu zen eta ondorioz emakumearen eta haren seme-alaben alde babes-agindu bat eman zen, abenduaren 10ean.

Almeriako PAko 258/2018 ez dago jasota aurretiazko salaketarik jarri denik, nahiz eta frogatuzat jo zen akusatuak bere bikotekideari, hildako adingabearen amari, tratatu txarrak gauzatu zizkiola.

A Coruña PAko 484/2018 epaian egiaztatzen da akusatua 9 hilabeteko espetxe-zigorra kondenatua izan zela aurretik (2009an), familia-esparruan derrigortze delitu jarraitu baten egile gisa. 2013an berriz ere, hildako adingabearen amak salaketa jarri zuen Facebook bidez mehatxuak jaso zituelako, baina genero indarkeriaren epaitegiak kausa artxibatu zuen.

Valentziako PAko 455/2019 kasuan, berrerortzeari dagokionez, konputatu ezin diren aurrekari penalak daudela adierazten da, beraz beste delitu mota bategatiko kondena izan zen indarkeria bikarioarekin loturarik ez dutena.

AGko 540/2020 kasuan, Luis Miguelek ez du aurrekari penalik. Ez zen aurretiazko salaketarik egon.

Jarraian adieraziko den bezala, 5 kasuetatik egitateen momentuan ez zen kautela-neurririk aurreikusten baina aurretiazko delituengatik aplikatu egin ziren, baita kasu baten erailketa aurrera eraman eta gero.

Gipuzkoako PAko157/2017 sententzian akusatuak derrigortze delitua gauzatu zuen. Horren ondorioz emakumearen eta haren seme-alaben alde babes-agindu bat eman zen, 2011ko abenduaren 10ean, erailketa 2011ko abenduaren 1ean izanik, beraz Calixtoren erailketaren ostean babes-agindua aurrera eraman zen.

Almeriako PAko 258/2018 kasuan, akusatuak erlazioan zehar (2014tik 2016ra) hildako adingabearen amari, tratu txarrak gauzatu zizkiola aurreikusten da, baina ez zuen akusatua inoiz salatu, beraz, ez zen babes-neurririk edo kautela-neurririk aplikatu.

A Coruñaako PAko 484/2018 kasuan, 2009an, 500 metro baino gutxiagora hurbiltzeko eta emazte ohiarekin komunikatzeko debekua ezarri zitzaion akusatuari, 3 urterako; beraz, neurria ez zen indarrean egon gertakariak gertatu ziren unean.

Kautelazko neurria ez bada ere, aipatu behar da egitateak adostutako bisita-erregimen bat betetzen zen bitartean gertatu zirela, adingabearen gurasoak dibortziaztean aplikatu zena.

Bestelako kasuetan ez dira babesteko kautela-neurririk aipatzen.

8.Aztertutako epai konkretuen ondorioak

Indarkeria bikarioarekin lotutako 5 epai aztertu ondoren zenbait ondorio nagusi atera daitezke. Lehenik eta behin, nabarmendu behar da epai guztietan aplikatzen dela erailketa-delitua (saiakera graduan edo burututa), eta gehiengo kasuetan astungarriak aplikatu direla (bai ahaidetasunarena, zein generoarena, azken honek baieztatzen duelarik seme-alaben erailketa emakumearen sufrimendua bideratzen lortzera bideratzen zela emakume izate hutsagatik).

Adingabeen hilketak egiteko motibazioari dagokionez, nabarmendu behar da ohikoa dela dibortzio-egoeretan gertatzea, lehen kasuan argi ikus daitekeen bezala (Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzia), akusatuak ez zuen gainditzen emazteak dibortzioa nahi izatea, edo, batzuetan, dibortzioaren ondoren, adingabeak bisita-erregimenean daudenean, A

Coruñako PAko 484/2018 kasuan ageri den bezala. Kasu horietan, motibazioa mendekuan oinarritua egon zen, mendeku hori emakumeak dibortziatu edo banatu nahi izatean finkatuz.

Hala ere, kasu guztiek faktore komun bat dute, helburu nagusia emakumeari kalterik handiena eragitea, seme-alabak horretarako erabiliz. Aipatutako helburua duten erasotzaileek muturrera eramaten dute indarkeria bikarioaren definizioa, adingabeen hilketa gauzatuz.

Erasotzaileen eta biktimen datuei dagokienez, adingabeen adina berrogei egunetik 16 urtera bitartekoa izan dela antzeman da (ez da zehazten adina, baina bai aipatzen da adingabea zela, 16 urte baino gehiago zuena, beraz 16 eta 18 urte bitartekoak zen). Erasotzaileei dagokienez, adin tartea 28 urtetik 50 urtera bitartekoa izan da. Erasotzaileari lotutako beste datu bat, bere buruaz beste egitea edo bere buruaz beste egiten saiakerak izan dira, zehazki aztertutako bi epaietan (Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzia eta AGko 540/2020 epaia).

Biktimen eta erasotzaileen arteko harremanari dagokionez, egiaztatu da kasu guztietan adingabeen gurasoak zirela, konkretuki aita zen erasotzailea, AGko 540/2020 kasuan izan ezik, ez baitzen alaba biologikoa, baina erasotzailea adingabekoaren amarekin ezkondata zegoen eta elkarrekin bizi ziren.

Nabarmenezkoa da, halaber, eraildako haurren eta erasotzailearen arteko lotura emozionalaren inguruko datu eskasia epaietan ez baita ezer aipatzen. Haurrak, kasuen oinarria baziren ere, ez zen aipatzen adingabeen egoera emozionala, erail aurretik zantzurik edo sintomarik zuten edo erasotzailearen arrisku handiko jokabidea aurreikusteko zerbait adierazi zuten. Eta, ezagutuz gero, ez zitzaion garrantzi nahikorik eman epaietan islatzeko. Hau da, ez da aurreikusten gertakariaren aurretik ohiz kanpoko harremanik adingabeen eta erasotzaileen artean. Azpimarratzekoa da, halaber, batzuetan adingabe horiek oso txikiak zirela eta ez zutela gurasoekin harremana erabat garatuta.

Kasu bitan ikus daiteke, seme eta aitaren arteko harremana zegoela. Batetik, Gipuzkoako PAko 157/2017 epaian ikus daitekeen bezala, batzuetan semea eta aita elkar ikusten zuten (nahiz eta dibortzioaren izapideen ondorioz elkarrekin ez ziren bizitzen) eta aitak batzuetan amari mezuak bidaltzeko erabiltzen zuen, amak erasotzailearekin hitz egiten saihesten baitzuen. Bestetik, A Coruñako PAko 484/2018 kasuan argitzen da bikotea

dibortziatu zela eta gertakarien momentuan aita, ama eta adingabea ez ziren elkarrekin bizi, baina adingabea eta akusatua dibortzioaren ondorioz ezarritako bisita-erregimena betetzeari ikusten ziren.

Bestalde, epaiak aztertuta egiaztatu ahal izan da nahiko ohikoa dela indarkeria egotea bikote barruan erailketa delitua gauzatu baino lehen (batzuetan salaketa ere jarri izanik). Salaketak jarri izan diren kasu guztietan derrigortze delitu batengatik izan dira (Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzia eta A Coruñako PAko 484/2018 sententzia). Konkretuki, A Coruñako PAko 484/2018 sententziak argitzen du akusatua 2009an derrigortze delitu jarraitu baten egile gisa kondenatua izan zela, baina 2013an berriz ere, hildako adingabearen amak salaketa bat jarri zuen Facebook bidez mehatxuak jaso zituelako, kausa hau genero-indarkeriaren epaitegiak artxibatu zuen. Almeriaren kasuan (Almeriako PAko 258/2018 epaian) salaketarik jarri ez bazen ere, epaiaren bidez erailketa delituaz gain, genero-indarkeriaren barne ohiko tratu txarren delitua eta lesio delitua epaitu ziren. Era berean, epaian frogatuta geratu zen emakumearen aurkako erasoak bikotearen harreman osoan gertatzen zirela. Beraz, esan daiteke haurren erailketak gertatu aurretik ere badaudela indarkeria-zantzuak edo amaren eta adingabeen osotasun fisikoa eta psikologikoa arriskuan jar dezaketen egoerak. Datu honek iradokitzen du erailketa ekiditea posible izan daitekeela, aurretiaz antzematen diren zantzuak behar bezala aztertu eta horien aurrean neurri egokiak hartzen badira.

Bukatzeko, azken ondorio bezala esan dezakegu, epaien azterketa baliagarria izan dela indarkeria bikarioaren muturreko egitateak nola zigortzen diren ezartzeko, baita adingabeen hilketen aurreko egoerak aztertzeko ere. Analisi honek non jardun behar den eta zein neurritan detektatzen laguntzen digu.

ONDORIO OROKORRAK ETA PROPOSAMEN BATZUK

Lan osoan zehar egiaztatu da indarkeria bikarioa aurrera eramateko motibazioa amari ahalik eta kalte handiena eragitea dela, seme-alaben bidez, eta mendekua arrazoi nagusi izanik. Beraz, indarkeria bikarioa amaren aurkako indarkeria da, seme-alaben gainean egiten dena, emakumea kaltetzeko asmoz. Seme-alabak instrumentu bat dira emakumearen aurkako tratu txarrekin eta indarkeriarekin jarraitzeko, hau da, genero-indarkeriaren modalitate bat da.

Garrantzitsua da aipatzea indarkeria eta krimenak ikuskizun diren gizarte batean, eman nahi diren konponbide sozialei dagokienez komeni dela erabakiak hausnarketa handi baten ondoren egitea. Aitak bere seme-alaba erailtzeak normalean gorroto erantzuna izaten badu ere, garrantzitsua da fenomeno hori arretaz aztertzea eta populismoek eta iritzi publikoen korrontek ez eragitea hartu beharreko erabaki eta neurrietan.

Dena dela, kasu askotan, aurrera eraman diren lege-erreforma eta -erantzunak indarkeria bikarioak gizartean sortu duen alarma sozialaren ondorioz eman dira. Esaterako, Gobernuaren genero-indarkeriaren aurkako ordezkariak hildako adingabeen kasuak 2013an hasi ziren jasotzen, José Bretonen kasuaren ondoren. Beraz, neurriak egitateek sortzen duten gizarte alarma murrizteko hartu dira.

Prebentzioari dagokionez, krimen horietako asko nekez iragar daitezke aurrez aurrekari ezagunik ez badago, eta ondorioz ezinezkoa izango aurretiazko esku-hartzea. Aldiz, genero-indarkeriagatiko aurrekari edo aurretiazko salaketak badaude eta kasuak banan-banan ikertzen badira, indarkeria bikarioko egoera baten zantzuak antzeman daitezke. Horrela, indarkeria horrek izan dezakeen emaitzarik krudelena prebenitu ahal izango litzateke, hau da, aitak seme-alabak hiltzea ekiditea. Beraz, ezinbestekoa da indarkeria bikarioaren aurrerik ematen diren egoerak kontuan hartzea, horiek prebenitzeko eta zigortzeko.

Beraz, ezinbestekoa da emakumeek tarteratzen duten salaketak arreta handiz aztertzea etorkizunean arrisku-egoerak saihesteko. Aztertutako kasuetako batean gertatu zen bezala, emakumeetako batek salaketa bat jarri zuen Facebook bidez mehatxuak jaso zituelako akusatua partez, baina genero-indarkeriaren epaitegiak artxibatu zuen eta urte batzuk geroago aitak bere semea hil zuen. Egia da, askotan ez dela erreza etorkizuna iragartzea eta horrelako egitate batetik ondorioztatzea erailketa bezalako delitu hain larri bat gertatu

daitekeela, baina kontuan izanik indarkeria modu progresiboan handitzen joan daitekeela, operadore juridikoen, psikologoek eta poliziaren lana funtsezkoa da indarkeriaren lehenengo zantzua antzematen den unetik.

Oso garrantzitsua da ere kontuan hartzea emakume askok ez dutela salaketa jartzen ondorioen beldur direlako edo hori egiteak ezertarako balio ez duela uste dutelako. Horregatik, kasuak ezagutzen direnean beranduegi izaten da batzuetan. Beraz, oinarritzkoa da da genero-indarkeriarekin lan egiten duten profesionalak formakuntza egokia izatea horrelako egoerak aurreikusteko eta identifikatzeko gai izan daitezen. Tratu txarren inguruko seinaleei arreta berezia jarri behar zaie, alarma-ahotsa eman ahal izateko. Beraz, biktimak ez ezik, gizarte osoak ere kontzientzia hartu behar du, beharrezkoa denean jardun ahal izateko.

Aipatzekoa da, lanean azaldutako epaiak eta datu estatistikoak aztertu ondoren, dibortzio baten ondoren bisita-erregimena ezarrita dagoen kasuetan oso eragingarria izango litzatekeela egoera horien kontrol hurbilagoa izatea. Baita dibortzioa tramitatzen den bitartean. Izan ere, batzuetan, erasotzaileek, konkretuki adingabeen aita, adingabeekin duten denbora hori erabiltzen dute hilketak gauzatzeko.

Indarkeria bikarioarekin amaitu ahal izateko, modu globalean jorratu behar da, gertakari isolatuak direla pentsatzetik harago, gizarte osoan dagoen egiturazko desberdintasun-arazo bati erantzuten baitio. Babes-neurriez harago, aldaketa sakonago batetik abiatzea beharrezkoa izango da, indarkeria matxista guztiak bezalaxe. Markatutako genero-rolak birpentsatzea, menderatze-sistemak deseraikitzea edo gatazkak nola kudeatzen diren aztertzea. Baina sakoneko lan hori txikitatik egin beharko litzateke, hainbat esparrutan (eskola, familia, aisialdia, etab.).

Laburbilduz, indarkeria mota hau prebenitzeko gakoa gizartea hezte, prestatzea, espezializatzea eta sentibilizatzea izango da. Baina baita funtsezkoa da profesionalen prestakuntza eta espezializazioa lan-eremuan eta sektore publikoetan, prebentzio-estrategia eta neurri egokiak har ditzaten. Neurri horien artean, aipatzekoa da seme-alaba adingabeei eta tutoretzapean edo zaintzapean edo babespean daudenei laguntza ematea, kontuan hartuta jomuga erraza direla erasotzaileentzat. Era berean, beharrezkoa da; hala nola osasun-, polizia-, hezkuntza- eta justizia-arloko erakundeek parte-hartze eta prestakuntza.

Komunikabideei dagokionez; biztanleriarentzat baliotsua eta eraginkorra den informazioa eman dezakete, genero-indarkeriaren aurkako neurriak eta tratu txarren egoera horiek salatzeko dauden moduak informatuz. Era berean, kasuen tratamendu egokia ematea ezinbestekoa, hona hemen kasuak tratatzeko gomendio batzuk: notiziaren inpaktuaren eta biktimarengan izan dezakeen eraginaren arteko balantzea egitea, emakumeen aurkako indarkeria-gertaerak kasu bakan edo ezohiko gisa ez erakustea, horrek haien ulermena mugatzen baitu: uste baino ohikoagoak dira, eta erasotzailea barkatzen duten edo biktima erruduntzat jotzen duten titularrak edo ikuspegiak saihestea.

Komunikabideak gertakariaren eta gizartearen ulermenaren arteko zubia dira. Baina haien rola haratago doa; izan ere, iritzi-sortzaile izateaz gain, gai bati buruzko pertzepzioak, jarrerak eta gizarte-arauak molda ditzakete, baita portaeretan eragin ere. Komunikabideek lanean jarraitu behar dute modu egokian informatzeko eta, horrela, genero-indarkeriako eta indarkeria bikarioko kasu gehiago saihets daitezke.

Bukatzeko, azterlan hau indarkeria bikarioaren muturreko modalitateari zentratu den arren; hau da, seme-alaben hilketa, emakumeari atzeraezina den mina sortzeko, ikusi izan da indarkeria bikarioak beste forma batzuk ere hartzen ditu mutur honetara heldu baino lehen: hitzezko tratu txar eta tratu txar psikologiko soilak izan daitezke, edota indarkeria fisikoa. Beraz, berriz ere azpimarratu behar da, ezinbestekoa dela aurreko egoerak identifikatzea eta horretan esku hartzea, indarkeria bikarioa muturreraino eramane ez dadin.

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

A Coruñaeko Probintzia Auzitegia 484/2018 sententzia (Lehen Sekzioa), 2018ko urriaren 16an (17/2018 errekurtoa).

Almeriako Probintzia Auzitegia 258/2018 sententzia (Bigarren Sekzioa), 2018ko ukainaren 11an (1/2018 errekurtoa).

Atenciano, B. (2009). Menores expuestos a violencia contra la pareja: notas para una práctica clínica basada en la evidencia. *Clinica y Salud*, 20(3), 261-272. Hemen berreskuragarri:

http://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1130-52742009000300007&lng=es&tlng=es.

Auzitegi Gorenaren 540/2020 sententzia (Zigor arloko bigarren sala), 2020ko urriaren 23koa, (Kasazio penaleko errekurtoa, 10206/2020 P).

Auzitegi Gorenaren 587/2014 sententzia, 2014ko uztailaren 18an (Kasazio errekurtoa, 11124/2013 P). Hemen berreskuragarri: http://www.abc.es/informacion/cordoba/recursos/pdf/Sentencia_Jose_Breton.pdf

Bernuz Beneitez, M.J. (2015). El maltrato animal como violencia doméstica y de género. Un análisis sobre las víctimas. *Revista de victimología*. 2, 97-123. Hemen berreskuragarri:

<http://www.huygens.es/journals/index.php/revista-de-victimologia/article/view/25/15>

Company, A., Pajón, L., Romo, J. y Soria, M. Á.(2015). Filicidio, infanticidio y neonaticidio: estudio descriptivo de la situación en España entre los años 2000-2010. *Revista Criminalidad*, 57(3), 91-102. Hemen berreskuragarri: http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1794-31082015000300007&lng=en&tlng=es.

De la Cruz, J. G., Guija, J. A., y Pastor Bravo, M. del M. (2022). El llamado síndrome de alienación parental y sus derivaciones. *Revista Española De Medicina Legal*, 48(1), 22-29. <https://doi.org/10.1016/j.rempl.2021.06.001>

Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género (2020). Macroencuesta de Violencia contra la Mujer 2019. Hemen berreskugarri: https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/pdf/Macroencuesta_2019_estudio_investigacion.pdf

Emakunde. (2015). Emakumearen aurkako indarkeria EAE-n. Eusko Jaurlaritzak. EDE Fundazioko Ikerketa Sozialeko Zerbitzua. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/eu_def/adjuntos/azken_txostena_2014_2015-06.pdf

Escudero, A., Aguilar, L., y Cruz, J. D. L. (2008). La lógica del Síndrome de Alienación Parental de Gardner (SAP): "terapia de la amenaza". *Revista de la Asociación española de Neuropsiquiatría*, 28(2), 285-307. https://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0211-57352008000200004

Federación de Mujeres Separadas y Divorciadas (2021). *Menores asesinados víctimas de la violencia de género 2021*. 2022eko apirilaren 18an berreskuratua: <https://www.separadasydivorciadas.org/2021-menores/>

Federación de Mujeres Separadas y Divorciadas (2022). *Menores asesinados víctimas de la violencia de género 2022*. 2022eko apirilaren 18an berreskuratua: <https://www.separadasydivorciadas.org/2022-menores>

Ferrer-Pérez, V. A. y Bosch-Fiol, E. (2019). El género en el análisis de la violencia contra las mujeres en la pareja: De la "ceguera" de género a la investigación específica del mismo. *Anuario de Psicología Jurídica*, 29, 69-76. <https://doi.org/10.5093/apj2019a3>

Friedman, S. H., y Resnick, P. J. (2009). Neonaticide: Phenomenology and considerations for prevention. *International journal of law and psychiatry*, 32(1), 43-47. <https://doi.org/10.1016/j.ijlp.2008.11.006>

Convive Fundación Cepaim. (17 de enero de 2020). Una mirada experta. El falso síndrome de alienación parental. Violencia estructural contra las mujeres. <https://www.cepaim.org/una-mirada-experta-el-falso-sindrome-de-alienacion-parental-violencia-estructural-contra-las-mujeres/>

Gallego, H. (2013). Desenmascarando al “Síndrome de Alienación Parental”. *Red Uruguaya contra la Violencia Doméstica y Sexual*. <http://violenciadomestica.org.uy/repo/img/desenmascarandoalsap.pdf>

Gardner, R. A. (1985). Recent trends in divorce and custody litigation. *In Academy forum* 29,(2), 3-7. <https://pasg.info/app/uploads/2015/06/Gardner-Richard-1985.pdf>

Gipuzkoako Probintzia Auzitegia 157/2017 sententzia (Lehen Sekzioa), 2017ko uztailean 11koa (1008/2014 errekurtoa).

Gobierno de España (2019). Documento refundido de medidas del Pacto de Estado en materia de Violencia de Género. Congreso+Senado, Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad. http://www.violenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/pactoEstado/docs/Documento_refundido_P_EVG_.pdf.

Linares, M. (2021). La violencia vicaria en el marco de la violencia machista. Consell dels il·lustres Col·legis d'advocats de Catalunya. <https://www.cicac.cat/wp-content/uploads/2021/11/Material-Montse-Linares.pdf>

Myers, W. C., Lee, E., Montplaisir, R., Lazarou, E., Safarik, M., Chan, H. C., y Beauregard, E. (2021). Revenge filicide: An international perspective through 62 cases. *Behav Sci Law*, 39, 205–215. <https://doi.org/10.1002/bsl.2505>

Ministerio de Igualdad. Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género. (2021). *Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas*.

https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/2022/VMortales_2022_06_09-21_Anuar.pdf

Ministerio de Igualdad. Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género. (2021). *Ficha estadística de víctimas mortales por Violencia de Género*. https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMenores/docs/VMortalesMenores_2021.pdf

Ministerio de Igualdad. Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género. (2022). *Ficha estadística de víctimas mortales por Violencia de Género*. https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMenores/docs/VMortalesmenores_2022_04_04.pdf

Osakidetza (11 de agosto de 2021). Conociendo la violencia vicaria. <https://osieec.osakidetza.eus/blog/conociendo-la-violencia-vicaria/>

Pence, E., y Paymar, M. (1993). *Education groups for men who batter: the Duluth model*. Springer Publishing Company. <https://doi.org/10.1891/9780826179913>

Ramallo Miñán, E. P. (2022). Violencia de extensión y vicaria: medidas normativas urgentes para una ejecución inicial. *Revista Acta Judicial*, 9, 90-118. <https://revistaactajudicial.letradosdejusticia.es/index.php/raj/article/view/64>

Resnick, P. J. (1969). Child murder by parents: A psychiatric review of filicide. *The American Journal of Psychiatry*, 126(3), 325–334. <https://doi.org/10.1176/ajp.126.3.325>

Resnick, P. J. (2016). Filicide in the United States. *Indian Journal of Psychiatry*, 58(6), 203–209. <https://doi.org/10.4103/0019-5545.196845>

Ruiz González, J. G. (2021). La lucha contra la violencia de género en España: de la constitución al pacto de estado a la luz del informe grevio. *Derecho global. Estudios sobre derecho y justicia*, 6(18), 17-41. <https://doi.org/10.32870/dgedj.v6i18.235>

Segura, C., Gil, M. J., y Sepúlveda MA. (2006). El síndrome de alienación parental: una forma de maltrato infantil. *Cuadernos De Medicina Forense*, 43-44, 117-128. <https://doi.org/10.4321/S1135-76062006000100009>

Servet, V. M. (2016). Cuadro de modificaciones afectantes a la violencia de género en las recientes reformas legislativas. *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, N° 120, Sección Práctica penal, Editorial LA LEY. <https://laleydigital.laleynext.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAEAMtMSbF1CTEAAiNjEwMzE7Wy1KLizPw8WyMDQzMMDMwNDkEBmWqVLfnJIZUGqbVpiTnEqAKMbN-g1AAAAWKE>

Sérgio Pinheiro, P. (2010). *Informe mundial sobre la violencia contra los niños y niñas*. https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/2954_d_Informe_Mundial_Sobre_Violencia.pdf

Trijueque, D. G., y Rivas, M. J. M. (2003). Filicidio Y neonaticidio: Una revisión. *Psicopatología Clínica Legal y Forense*, 3(2), 91-106. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/982295.pdf>

Vaccaro, S. (18 de marzo de 2016) . *Violencia Vicaria: Las hijas y los hijos víctimas de la Violencia contra sus madres*. Tribuna Feminista. <https://tribunafeminista.org/2016/03/violencia-vicaria-las-hijas-y-los-hijos-victimas-de-la-violencia-contra-sus-madres/>

Vaccaro, S. (7 de junio de 2016). *En el nombre del “SAP” se castiga a todas las madres que denuncian violencia*. Tribuna Feminista. <https://tribunafeminista.org/2016/06/en-el-nombre-del-ssap-se-castiga-a-todas-las-madres-que-denuncian-violencia/>

Vaccaro, S. (2018). La justicia como instrumento de la violencia vicaria: la ideología del pretendido “sSAP” y la custodia compartida impuesta. *Nuevas jornadas de VG el patriarcado en la justicia*.

http://consellodacultura.gal/mediateca/extras/CCG_ac_2018_novasformasviolenciaxenero_soniavaccaro.pdf

Vaccaro, S. (2 de febrero de 2019). *¿Qué es la Violencia Vicaria?*. SV – Psicóloga Clínica y Forense. <https://www.soniavaccaro.com/post/violencia-vicaria>

Vaccaro, S. (23 de marzo de 2021). *Violencia vicaria: “Yo no te mato, tú te suicidas”*. Tribuna Feminista. <https://tribunafeminista.org/2021/03/violencia-vicaria-yo-no-te-mato-tu-te-suicidas/>

Vaccaro, S. (2022). *Estudio sobre el análisis de datos de casos de violencia vicaria extrema. Violencia Vicaria: Un golpe irreversible contra las madres*. Asociación de Mujeres de Psicología feminista. https://psicologiafeminista.com/wp-content/uploads/AMPF-Informe_V_Vicaria-DIGITAL.pdf

Valentziako Probintzia Auzitegia 455/2019 sententzia (Lehen Sekzioa), 2019ko urriaren 21ekoa (21/2019 errekurtsioa).

Yugueros García, A. J. (2016). La protección de los menores víctimas de violencia de género en España. Aposta, *Revista de Ciencias Sociales*. 70, 38-52. <http://www.apostadigital.com/revistav3/hemeroteca/yugueros1.pdf>

KONTSULTATUTAKO ARAUDIA ETA LEGERIA

Gobierno de España (2019). Documento refundido de medidas del Pacto de Estado en materia de Violencia de Género. Congreso+ Senado. Ministerio de Sanidad, Asuntos Sociales e Igualdad. Hemen berreskugarri: https://violenciagenero.igualdad.gob.es/pactoEstado/docs/Documento_Refundido_PEVG_2.pdf

Decreto-ley 26/2021, de 30 de noviembre, de modificación del libro segundo del Código civil de Cataluña en relación con la violencia vicaria.(BOE, núm. 18, de 21 de enero de 2022, páginas 6623 a 6628 (6 págs.)). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es-ct/dl/2021/11/30/26>

Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género. (2021). Publicadas dos importantes leyes que contribuyen al cumplimiento del Pacto de Estado contra la Violencia de Género https://violenciagenero.igualdad.gob.es/laDelegacionInforma/2021/DGVGInforma_leyespacto.pdf

Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal.(BOE» núm. 281, de 24 de noviembre de 1995). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1995/11/23/10/con>

Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, de modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil. (BOE, núm. 15, de 17 de enero de 1996). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1996/01/15/1/con>

Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género.(BOE, núm. 313, de 29 de diciembre de 2004). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2004/12/28/1/con>

Ley 4/2015, de 27 de abril, del Estatuto de la víctima del delito. (BOE, núm. 101, de 28 de abril de 2015). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es/l/2015/04/27/4/con>

Ley Orgánica 1/2015, de 30 de marzo, por la que se modifica la Ley Orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, del Código Penal.(BOE, núm. 77, de 31 de marzo de 2015, páginas 27061 a 27176 (116 págs.)). Hemen berreskugarri:<https://www.boe.es/eli/es/lo/2015/03/30/1>

Ley Orgánica 8/2015, de 22 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia.(BOE, núm. 175, de 23 de julio de 2015, páginas 61871 a 61889 (19 págs.)).Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2015/07/22/8>

Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia. (BOE, núm. 180, de 29 de julio de 2015). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es/l/2015/07/28/26/con>

Ley 17/2020, de 22 de diciembre, de modificación de la Ley 5/2008, del derecho de las mujeres a erradicar la violencia machista. (BOE, núm. 11, de 13 de enero de 2021, páginas 3096 a 3113 (18 págs.)). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es-ct/l/2020/12/22/17>

Ley 14/2021, de 20 de julio, por la que se modifica la Ley 11/2007, de 27 de julio, gallega para la prevención y el tratamiento integral de la violencia de género. (BOE, núm. 226, de 21 de septiembre de 2021, páginas 115299 a 115301 (3 págs.)). Hemen berreskugarri: <https://www.boe.es/eli/es-ga/l/2021/07/20/14>

Resolución 48/104 de la Asamblea General “*Declaración sobre la Eliminación de la Violencia contra la Mujer*” A/RES/48/104 (20 de diciembre de 1993). Hemen berreskugarri:<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2002/1286.pdf?file=fileadmin/Documentos/BDL/2002/1286>

Txosten exekutiboa

Marko teorikoa

Kriminologia-graduaren ikasketen zehar fenomeno eta kontzeptu kriminologiko ugari jorratu dira, gehienak delitu berarekin edo delitu hori egiten duen pertsonarekin lotuta. Hala ere, inoiz jorratu dugu biktimei buruzko gai-zerrenda, baina ez oso sakon. Hori da gai hau aukeratzeko abiapuntuetako bat. Aldi berean, indarkeria bikarioa azken urteetan etengabe errepikatzen den kriminologiarekin lotutako kontzeptu berri bat izateak ere sustatu du honen inguruko lana egitera animatzea. Adituen arabera, indarkeria bikarioa da, aitak seme-alabak erabiltzen dituen amari (bikotekideari edo bikotekide ohiari) min egiteko. Beraz, emakumearen aurka zuzentzen den indarkeria da; izan ere, seme-alabak instrumentalizatzea, emakumeari mina eragiteko eta kontrola areagotzeko, genero-indarkeriak hartzen duen modurik muturrekoenetako eta basatienetako bat da.

Indarkeria bikarioari buruzko ezjakintasun handia dagoen arren, genero-indarkeriaren testuinguruan ohikoa den indarkerietako bat da eta oso gutxitan salatzen dena. Ez da indarkeria isolatu bat, baizik eta emakumeek sarritan jasaten duten kontrol eta tratu txar prozesu baten amaiera. Hori dela eta, funtsezkoa da indarkeria bikarioari buruz hitz egitea, informatzea eta prestatzea, batzuetan gai bati buruz hitz egiten ez denean existitzen ez dena ematen duelako, eta askotan ezagutzen ez dena zaila izango delako horri aurrea hartzea edo aurre egitea.

Beraz, lan honen helburuen artean, genero-indarkeriaren barruan, indarkeria bikarioaren terminoari buruzko berrikuspen bat egiten saiatzea da, baina baita delituaren fenomenologia alderdi kriminologiko batetik ulertzea ere, non epai batzuk aztertuko diren ahalik eta informazio gehien aztertzeko eta ikuspuntu praktikoagoa emateko.

Indarkeria bikarioa terminoa Sonia Vaccaro psikologo klinikoak sortu zuen duela ia 10 urte eta azken aldian psikologoaren ikuspuntuak indarra hartu du, honela definitzen duelarik: Indarkeria bikarioa emakumearen aurka zuzentzen den indarkeria da, baina zeharka seme-alabengan erabiltzen dena. Beraz, adingabeak indarkeria horren ordezkotako objektu gisa erabiltzen dira. Genero-indarkeriaren testuinguruan kokatzen da eta, adibidez, emakumeak bikotekidearekiko harremana utzi nahi duenean sortzen da. Une horretan erabiltzen ditu aitak

seme-alabak xantaia gisa: *"Joaten bazara, ez dituzu seme-alabak berriro ikusiko"*. Horrela, subjektuak emakumea hertsatzen du eta seme-alabak tratu txarrekin jarraitzeko modutzat hartzen ditu. Horrela, tratu txarrak ematen dituenak kalte handiena egin nahi dio emakumeari.

Beraz, Sonia Vaccaro psikologoaren ikuspegiaren arabera, emakumeari zuzentzen den indarkeria-mota da baina, mina eragiteko, hirugarren bat erabiliz, kasu horietan, aita bere seme-alabei egiten dien kalte fisiko edo psikologikoari erreferentzia eginez, ama mintzeko asmoz. Ohartarazi duenez, heriotza eragin zuten seme-alaben gaineko indarkeria bikarioa amaren aurkako aurretiazko indarkeriaren amaiera izan zen, tratu txarren aurretiazko historia luzea zeramaten gertakariak izanik. Erasotzaileak adin txikikoak hiltzen ditu, baina lehenago beti, emakumeari adierazi, mehatxatu eta jakinarazten dio bere ahulgunea bere seme-alabak direla .

Aipatu behar da indarkeria bikarioa emakumearen aurkako dela, eta, oro har, haren seme-alabak erabiltzen direla indarkeria hori gauzatzeko, bai eguneroko egitate sotilen bidez, zein haiei zuzenean bideratutako kalteen bidez, baina beti tratu txarrak aurrera eramaten dituenak emakumea horretaz ohartarazten dela ziurtatuz. Muturreko forma seme-alaben hilketa izanik, eta azterlan honetan bildu eta aztertu ziren datuen xedea izanik. Seme-alabak kaltetzean, eta maila gorenean, horren erailketa aurrera eramatean, erasotzaileak ziurtatzen du emakumea ezin izango dela inoiz errekuperatu.

Emakumeek indarkeria matxista desagerrarazteko duten eskubideari buruzko 17/2020 Legean 4.2 artikuluan xedatzen du indarkeria bikarioa, *"consiste en cualquier tipo de violencia machista ejercida contra los hijos e hijas con la finalidad de provocar daño psicológico a la madre."*

Aipatzekoa da, biktinek genero-indarkeriatik irteteko aurkitzen duten irteera eramangarrienetako eta mehatxu gutxien eragiten dituenetako bat dibortzioa dela, eta ez salaketa judiziala. Genero-indarkeriari buruzko 2019ko Makro-inkestaren arabera, indarkeria jasan duten eta salatu ez zuten emakumeen % 77,4k bikotekidearekin harremana hautsi zuen. Hortaz, dibortzio-prozesu gatazkatsu horietan, seme-alabekin, administrazio judizialak adierazle guztiak ondo ikuskatu eta berrikusi behar ditu, bisitak, baimenak eta zaintza-araubidea baloratu ahal izateko.

Beraz, indarkeria bikarioen kasu asko antzeman zitezkeen dibortzio edo banaketa prozesuetan ematen diren adierazleak ondo aztertu izan balira: banandu ondorengo gizonen jokabidea, alabek aitarekiko duten jarrera, osasun-zentroetako txostenak, mehatxuak, adingabeen eta inguruko lekukotzak.

Azkenik, Sonia Vaccarok 2022an muturreko indarkeria bikarioaren inguruan gauzatutako ikerketan islatzen da, halaber, banantzea/dibortzioa izan dela adingabeak hiltzeko arrazoietako bat. Kasu guztien (50 kasu aztertu ziren) % 52an ikusten da banantzea edo dibortzioa ez onartzea izan dela krimena eragin duten arrazoietako bat. Eta erailketen % 13 emakumeak harremanaren amaiera planteatzen zuenean gertatu zen. Hortaz, dibortzioa/banaketa edo emakumeak hau planteatzea indarkeria bikarioa muturrera heltzeko arriskueta bat da.

Alderdi praktikoa: sententzien azterketa

Hasieran aipatu den moduan, lan hau, fenomeno honen inguruan informazioa jasotzeko kasu batzuen azterketa aurrera eramán da. Bost epai aztertuko dira, indarkeria bikarioaren ezaugarriak ezagutzeko helburuaz. Guztiek amankomunean duten ezaugarria hilketa gauzatzeko motibazioa da: motibazio nagusia adingabekoen bidez amari kalte egitea dela (seme-alaba biologikoak izan ala ez).

Indarkeria bikarioarekin lotutako 5 epai aztertu ondoren zenbait ondorio nagusi atera daitezke. Lehenik eta behin, nabarmendu behar da epai guztietan aplikatzen dela erailketa-delitua (saiakera graduán edo burututa), eta gehiengo kasuetan astungarriak aplikatu direla (bai ahaidetasunarena, zein generoarena, azken honek baieztatzen duelarik seme-alaben erailketa emakumearen sufrimendua bideratzen lortzera bideratzen zela emakume izate hutsagatik).

Adingabeen hilketak egiteko motibazioari dagokionez, nabarmendu behar da ohikoa dela dibortzio-egoeretan gertatzea, lehen kasuan argi ikus daitekeen bezala (Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzia), akusatua ez zuen gaitzen emazteak dibortzioa nahi izatea, edo, batzuetan, dibortzioaren ondoren, adingabeak bisita-erregimenean daudenean, A Coruña-ko PAko 484/2018 kasuan ageri den bezala. Kasu horietan, motibazioa mendekuan

oinarritua egon zen, mendeku hori emakumeak dibortziatu edo banatu nahi izatean finkatzen zen.

Hala ere, kasu guztiek faktore komun bat dute, helburu nagusia emakumeari kalterik handiena eragitea, seme-alabak horretarako erabiliz. Aipatutako helburua duten erasotzaileek muturrera eramaten dute indarkeria bikarioaren definizioa, adingabeen hilketa gauzatuz.

Erasotzaileen eta biktimen datuei dagokienez, adingabeen adina berrogei egunetik 16 urtera bitartekoa izan dela antzeman da (ez da zehazten adina, baina bai aipatzen da adingabea zela, 16 urte baino gehiago zuena, beraz 16 eta 18 urte bitartekoak zen). Erasotzaileei dagokienez, adin tartea 28 urtetik 50 urtera bitartekoa izan da. Erasotzaileari lotutako beste datu bat, bere buruaz beste egitea edo bere buruaz beste egiten saiakerak izan dira, zehazki aztertutako bi epaietan (Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzian eta AGko 540/2020 epaia).

Biktimen eta erasotzaileen arteko harremanari dagokionez, egiaztatu da kasu guztietan adingabeen gurasoak zirela, konkretuki aita zen erasotzailea, AGko 540/2020 kasuan izan ezik, ez baitzen alaba biologikoa, baina erasotzailea adingabekoaren amarekin ezkondata zegoen eta elkarrekin bizi ziren.

Nabarmentzekoa da, halaber, eraildako haurren eta erasotzailearen arteko lotura emozionalaren inguruko datu eskasia epaietan ez baita ezer aipatzen. Haurrak, kasuen oinarria baziren ere, ez zen aipatzen adingabeen egoera emozionala, erail aurretik zantzurik edo sintomarik zuten edo erasotzailearen arrisku handiko jokabidea aurreikusteko zerbait adierazi zuten. Eta, ezagutuz gero, ez zitzaion garrantzi nahikorik eman epaietan islatzeko. Hau da, ez da aurreikusten gertakariaren aurretik ohiz kanpoko harremanik adingabeen eta erasotzaileen artean. Azpimarratzekoa da, halaber, batzuetan adingabe horiek oso txikiak zirela eta ez zutela gurasoekin harremana erabat garatuta.

Kasu bitan ikus daiteke, semearen eta aitaren arteko harremana zegoela. Batetik, Gipuzkoako PAko 157/2017 epaian ikus daitekeen bezala, batzuetan semea eta aita elkar ikusten zuten (nahiz eta dibortzioaren izapideen ondorioz elkarrekin ez ziren bizitzen) eta aitak batzuetan amari mezuak bidaltzeko erabiltzen zuen, amak erasotzailearekin hitz egiten saihesten baitzuen. Bestetik, A Coruñako PAko 484/2018 kasuan argitzen da bikotea

dibortziatu zela eta gertakarien momentuan aita, ama eta adingabea ez ziren elkarrekin bizi, baina adingabea eta akusatua dibortzioaren ondorioz ezarritako bisita-erregimena betetzeari ikusten ziren.

Bestalde, epaiak aztertuta egiaztatu ahal izan da nahiko ohikoa dela indarkeria egotea bikote barruan erailketa delitua gauzatu baino lehen (batzuetan salaketa ere jarri izanik). Salaketak jarri izan diren kasu guztietan derrigortze delitu batengatik izan dira (Gipuzkoako PAko 157/2017 sententzia eta A Coruñaako PAko 484/2018 sententzia). Konkretuki, A Coruñaako PAko 484/2018 sententziak argitzen du akusatua 2009an derrigortze delitu jarraitu baten egile gisa kondenatua izan zela, baina 2013an berriz ere, hildako adingabearen amak salaketa bat jarri zuen Facebook bidez mehatxuak jaso zituelako, kausa hau genero-indarkeriaren epaitegiak artxibatu zuen. Almeriaren kasuan (Almeriako PAko 258/2018 epaian) salaketarik jarri ez bazen ere, epaiaren bidez erailketa delituaz gain, genero-indarkeriaren barne ohiko tratu txarren delitua eta lesio delitua epaitu ziren. Era berean, epaian frogatuta geratu zen emakumearen aurkako erasoak bikotearen harreman osoan gertatzen zirela. Beraz, esan daiteke haurren erailketak gertatu aurretik ere badaudela indarkeria-zantzuak edo amaren eta adingabeen osotasun fisikoa eta psikologikoa arriskuan jar dezaketen egoerak. Datu honek iradokitzen du erailketa ekiditea posible izan daitekeela, aurretiaz antzematen diren zantzuak behar bezala aztertu eta horien aurrean neurri egokiak hartzen badira.

Bukatzeko, azken ondorio bezala esan dezakegu, epaien azterketa baliagarria izan dela indarkeria bikarioaren muturreko egitateak nola zigortzen diren ezartzeko, baita adingabeen hilketen aurreko egoerak aztertzeko ere. Analisi honek non jardun behar den eta zein neurritan detektatzen laguntzen digu.

Ondorioak eta proposamen batzuk

Lan osoan zehar egiaztatu da indarkeria bikarioa aurrera eramateko motibazioa amari ahalik eta kalte handiena eragitea dela, seme-alaben bidez, eta mendekua arrazoi nagusi izanik. Beraz, indarkeria bikarioa amaren aurkako indarkeria da, seme-alaben gainean egiten dena, emakumea kaltetzeko asmoz. Seme-alabak instrumentu bat dira emakumearen aurkako tratu txarrekin eta indarkeriarekin jarraitzeko, hau da, genero-indarkeriaren modalitate bat da.

Garrantzitsua da aipatzea indarkeria eta krimenak ikuskizun diren gizarte batean, eman nahi diren konponbide sozialei dagokienez komeni dela erabakiak hausnarketa handi baten ondoren egitea. Aitak bere seme-alaba erailtzeak normalean gorroto erantzuna izaten badu ere, garrantzitsua da fenomeno hori arretaz aztertzea eta populismoek eta iritzi publikoen korranteek ez eragitea hartu beharreko erabaki eta neurrietan.

Dena dela, kasu askotan, aurrera eraman diren lege-erreforma eta -erantzunak indarkeria bikarioak gizartean sortu duen alarma sozialaren ondorioz eman dira. Esaterako, Gobernuaren genero-indarkeriaren aurkako ordezkariak hildako adingabeen kasuak 2013an hasi ziren jasotzen, José Bretonen kasuaren ondoren. Beraz, neurriak egitateek sortzen duten gizarte alarma murrizteko hartu dira.

Prebentzioari dagokionez, krimen horietako asko nekez iragar daitezke aurrez aurrekari ezagunik ez badago, eta ondorioz ezinezkoa izango aurretiazko esku-hartzea. Aldiz, genero-indarkeriagatiko aurrekari edo aurretiazko salaketak badaude eta kasuak banan-banan ikertzen badira, indarkeria bikarioko egoera baten zantzuak antzeman daitezke. Horrela, indarkeria horrek izan dezakeen emaitzarik krudelena prebenitu ahal izango litzateke, hau da, aitak seme-alabak hiltzea ekiditea. Beraz, ezinbestekoa da indarkeria bikarioaren aurrerik ematen diren egoerak kontuan hartzea, horiek prebenitzeko eta zigortzeko.

Beraz, ezinbestekoa da emakumeek tarteratzen duten salaketak arreta handiz aztertzea etorkizunean arrisku-egoerak saihesteko. Aztertutako kasuetako batean gertatu zen bezala, emakumeetako batek salaketa bat jarri zuen Facebook bidez mehatxuak jaso zituelako akusatua partez, baina genero-indarkeriaren epaitegiak artxibatu zuen eta urte batzuk geroago aitak bere semea hil zuen. Egia da, askotan ez dela erreza etorkizuna iragartzea eta horrelako egitate batetik ondorioztatzea erailketa bezalako delitu hain larri bat gertatu daitekeela, baina kontuan izanik indarkeria modu progresiboan handitzen joan daitekeela, operadore juridikoen, psikologoen eta poliziaren lana funtsezkoa da indarkeriaren lehengo zantzia antzematen den unetik.

Oso garrantzitsua da ere kontuan hartzea emakume askok ez dutela salaketa jartzen ondorioen beldur direlako edo hori egiteak ezertarako balio ez duela uste dutelako. Horregatik, kasuak ezagutzen direnean beranduegi izaten da batzuetan. Beraz, oinarrizkoa da genero-indarkeriarekin lan egiten duten profesionalek formakuntza egokia izatea horrelako

egoerak aurreikusteko eta identifikatzeko gai izan daitezten. Tratu txarren inguruko seinaleei arreta berezia jarri behar zaie, alarma-ahotsa eman ahal izateko. Beraz, biktimak ez ezik, gizarte osoak ere kontzientzia hartu behar du, beharrezkoa denean jardun ahal izateko.

Aipatzekoa da, lanean azaldutako epaiak eta datu estatistikoak aztertu ondoren, dibortzio baten ondoren bisita-erregimena ezarrita dagoen kasuetan oso eragingarria izango litzatekeela egoera horien kontrol hurbilagoa izatea. Baita dibortzioa tramitatzen den bitartean. Izan ere, batzuetan, erasotzaileek, konkretuki adingabeen aita, adingabeekin duten denbora hori erabiltzen dute hilketak gauzatzeko.

Indarkeria bikarioarekin amaitu ahal izateko, modu globalean jorratu behar da, gertakari isolatuak direla pentsatzetik harago, gizarte osoan dagoen egiturazko desberdintasun-arazo bati erantzuten baitio. Babes-neurriez harago, aldaketa sakonago batetik abiatzea beharrezkoa izango da, indarkeria matxista guztiak bezalaxe. Markatutako genero-rolak birpentsatzea, menderatze-sistemak deseraikitzea edo gatazkak nola kudeatzen diren aztertzea. Baina sakoneko lan hori txikitatik egin beharko litzateke, hainbat esparrutan (eskola, familia, aisialdia, etab.).

Laburbilduz, indarkeria mota hau prebenitzeko gakoa gizartea heztea, prestatzea, espezializatzea eta sensibilizatzea izango da. Baina baita funtsezkoa da profesionalen prestakuntza eta espezializazioa lan-eremuan eta sektore publikoetan, prebentzio-estrategia eta neurri egokiak har ditzaten. Neurri horien artean, aipatzekoa da seme-alaba adingabeei eta tutoretzapean edo zaintzapean edo babespean daudenei laguntza ematea, kontuan hartuta jomuga erraza direla erasotzaileentzat. Era berean, beharrezkoa da; hala nola osasun-, polizia-, hezkuntza- eta justizia-arloko erakundeen parte-hartze eta prestakuntza.

Bukatzeko, azterlan hau indarkeria bikarioaren muturreko modalitateari zentratu den arren; hau da, seme-alaben hilketa, emakumeari atzeraezina den mina sortzeko, ikusi izan da indarkeria bikarioak beste forma batzuk ere hartzen ditu mutur honetara heldu baino lehen: hitzezko tratu txar eta tratu txar psikologiko soilak izan daitezke, edota indarkeria fisikoa. Beraz, berriz ere azpimarratu behar da, ezinbestekoa dela aurreko egoerak identifikatzea eta horretan esku hartzea, indarkeria bikarioa muturreraino eramanez ez dadin.